



Pireoko kanpamenduko errefuxiatuen egoera aurrez aurre izan dute boluntario uribekostarrek. ▶8

Olatz Ganboa Pilar aktore algortarrak Alde Zaharreko amoranteak antzezlanaren estreinatuko du Arriaga Antzokian. Beragaz berba egin dugu. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



62. zenbakia

2016ko
ekainaren 2tik
ekainaren 8ra arte

«Autozentsuran ez erortzea da emakumeon erronka»

Amal Ramsis zinema-zuzendari egiptoarrak bideo-tailerra eman die Getxoko andreei. ▶16



SAKONEAN AMAZONIAKO LURRETAN

Yanomami herria

Venezuelako eta Brasilgo Amazonian bizi diren azken 13.000 yanomamien lurraldera eroango gaitu orainoan Juan Luis Mugertzak: «Izpirituengan sinesten, eta handinahikeriarik ezagutzen ez duen leinua» ezagutzeko eta haien arrastoaren bila... ▶22-23

HERRIZ HERRI ETA AGENDA

Gure Esku Dago, prest!

Hilaren 5ean, Erabakiaren plaza ekimena egingo dute Getxon, eta aurkezpen-ekitaldiak Lemoizen, Leioan eta Urdulizen.

HERRIZ HERRI BERANGO

Ardo Eguna, domekan

Guztira, etxean egindako 600 botila txakolin banatuko dituzte domeka honetan, hilaren 5ean, Sabino Arana kalean. ▶9

Leioako Txorierrri auzoan, jaiak ospatuko dituzte aste-akabuan. Txiki zein handientzako ekitaldiak egongo dira. ▶6

Guatemalan ikastetxea egiten laguntzeko dirua batuko dute Sopelako Ander Deuna ikastolako urte-akabuko festan. ▶7

Elortza eskolak hezkuntza-proiektua aurkeztu du, Urdulizko zentroaren komunitate osoak adostu ostean. ▶9

Lemoizek Pottoka Eguna antolatuko du domekan, Andrakako Goikomendi zaldi-klubak, aberea ezagutarazteko. ▶18



Tiocfaidh ár lá

OIER ITURRALDE FERNANDEZ
«ATANO»
EH Bildu

Ispiluari begira
begiak itxi
nituenekoa

Erasotzaileak Algortako metro geltokitik jarraitu zuen emakume gazte bat, hura etxeko aparkalekura heldu arte. Bertan, sexualki eraso zion, eta hura defendatzen saiatu izan zenez, aurpegi kolpeak ematen hasi zitzaion...» zioen informazioak. Berriz ere indarkeria matxista gure kaleetan; berriz ere amorrua zainetan.

Gertaeraren larritasuna areagotuko zuen albistea biharamunean irakurri nuen, ustezko erasotzaile gisa 19 urteko mutila atxilotu zutela jakitean. Gaueko baretasunak zainetan borborka nuen amorrua apaldu bazidan, informazio berri hura ezagutzeak tristura eta etsipena berpiztu zuen nigan; 19 urteko mutil batek emakume bat sexualki erasotzeak azalpen argia baitzeukan: zerbait oso txarto ari gara egiten. Guztiz txarto. Ezin txarrago.

Albistegietan ikusiko genituen gero eraso salatzeako mobilizazioak, instituzio eta politikarion gaitzespen mezuak, talde feministen aldarrikapen beharrezko bezain gutxietsiak. Eskoletan, irakasleak matxismoaren zitalkeriaz mintzatuko zitzaizkien euren ikasleei, eta zalan-tzan jarriko eredu patriarkala. Neska gazte asko, albistez jakitun, kezkatu egingo ziren, eta kontzientzia mugiaraziko zitzaizkien; mutil gazte batzuei ere bai, agian.

Eta koadrilan hitz egingo zuten, eta akaso gurasoekin ere eztabaidatuko zuten emakumeekiko gizonen gailentasunaren bidegabekeria. Egun batez, edo biz, ahotan ibiliko zuten gertaera, eta barruak erdi nahasiak izango zituzten.

Baina, biharamunean, gure herriko neska-mutil gazte askok *Mujeres, hombres y viceversa* ikusten segituko zuten, Cristiano Ronaldo eta enparauak imitatzen, edo «Operación Bikini»-ren morroi izaten. Noiz arte? ◀

Getxo

«Aixe Getxo!» kultura-sariak banatu dituzte



Sari-banaketa maiatzaren 26an izan zen, Algortako Fadura kiroldegiko areto nagusian. © GETXOKO UDALA

Kulturarekiko duten konpromisoagatik, Getxoko 14 ekimen eta eragilek jaso dute «Aixe Getxo!» saria.

Udalerriko 14 kultur ekimen eta eragilek «Aixe Getxo!» sari bana jaso dute. Saritze horregaz, kultura-mundua-ren hainbat arlotan egiten duten lana, konpromisoa eta zabalkunde-ahalegina azpimarratu gura izan ditu Udalak. 2016ko saridunak honako hauek dira:

«Ikus-entzunezko Arteak» atalean, Pedro Zarrabeitia argazkilaria; «Arte plastikoak», Usua Fullaondo artista, iker-tzaile eta irakaslea; «Arte Eszenikoak», Ramon Ibarra aktorea; «Musika Klasi-koa eta Garaikidea», Mercedes Albaina Musikako goi-mailako tituluduna eta Psikologiako lizentziaduna; «Gaur Egungo Musika», Alex Blasco musikari profesionala eta Malvadillos taldeko kidea; «Literatura», Esther Zorro-zua idazlea; «Diseinua», diseinatzaile grafikoaren Getxoko Serifalaris topagunea; «Arkitektura eta Eredu Publikoa», Begoñako galeriak balioestea; «Kul-

tura Hezkuntzan eta Balioetan», Giza-tiar Itzubaltzeta/Romoko eta Areetako Emakumeen Elkarte Soziokulturala; «Zientzia eta berrikuntza Kultura», Borja Sorazu, grabitazio-uhinen aurkikuntzan parte hartu duten esperimentu-taldeetako baten kidea; «Kultura Ondarea, hautemangaitza», Karla Llanos Etxabe *Memorias de Getxo* blogaren egilea; «Aixegaztea», Garamendi musikagile, moldatzaile eta ekoizlea; eta «Ibilbide Profesional eta Artistikoa», Javier Lasa margolaria, eta Javier de Solaun tenorea eta Andres Isasi musikagilearen obraren ikertzailea. ◀

Begoñako galeriak ezagutzeko bisitaldiak areagotu dituzte

Udaldian, Begoñako galeriak ezagutzeko bisita gidatuen kopurua handitzea erabaki dute Getxoko Udalak eta EHUk. Horrez gainera, taldeko pertsona-kopurua ere handituko da; hala, ekainaren 1etik aurrera, taldeak 25 kidekoak izan daitezke (orain arte, 20koak ziren). Azaldu dutenez, erabaki hori hartu dute jendearen eskaria oso handia delako. Horrela, bada, uda sasoiaren hiru bisita gehiago eskainiko dituzte aste-akabuetan, uztailean, abuztuan eta iraillean; uztailearen 1etik bertatik aurrera. Taldeko pertsona-kopurua handitzeaz batera, %70 ugarituko dira udarako eskainitako leku-kopuruak: orain, astean 160 eskaintzen dira, eta udan,



berriz, 275 eskainiko dira. Bestalde, ikasleakaz ibilaldia egiteko aukerari dagokionez, edukiak azaldu zein pedagogoen oniritzia eman ondoren, bisitak egiteko gutxieneko adina ere jaitzi dute: 10 urtera (lehen, 12 urte eduki behar zituzten gutxienez). ◀

Saratxok irabazi du Irakurri, Gozatu eta Oparitaren txekoa

Maiatzaren 31n eman zioten amaiera aurtengo Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoari. Hala, apirilko parte hartzaileen artean saria banatu ostean, bada garaia jakinarazteko nor izan den maiatzeko parte hartzaileen artean zozkatu den 30 euroko txekearen irabazlea: Edurne Saratxo. Irabazleak txekoa Algortako Villamonteko kultur etxeko liburutegian jaso ahal izango du, eta Algortako Elkar, Areetako Bolibar-Elordui edo Itzubaltzeta/Romoko Gobelaurre liburu-dendetan gastatu ahal izango du txekoa. Aurtun, Euskal Herri osoko 50 herritan egin dute egitasmo hori, eta Getxon, bigarrenez antolatu du Egizu Getxo euskaldun elkarteak. ◀

Getxo

Getxo Arriluzeri, 40.000 euro

Udalbatzak Getxo Arriluze Arraun Taldeari traineru berria erosteko kreditu gehigarria ematea onartu du.

GUK taldeak izan ezik, Udalbatzako gainerako alderdiek Getxo Arriluze Arraun Taldeari 40.000 euroko diru-laguntza emateko kreditu gehigarria onartu zuten azkenengo osoko bilkuran, traineru berri bat erosteko. Halaber, gobernu-taldeak Alangoko babes ofizialeko 145 etxebizitza zozkatzeko azken izaipidea jakinarazi zuen. Hala, 4.042 euro erabiliko dituzte zozketaren azpiegitura prestatzeko. Testigantza-izaeragaz onartu zituzten, aurkeztutako 9 mozioetatik 5: lehenengoa, PPrena izan zen, eta Getxon wifi libreko eremuak jartzeko azterlana eskatu zuen, hau da, ea wifi libre zer ondorio tekniko eta ekonomiko eragin ditzakeen, eta

bideragarria den eremu egokietan wifi publikoa ipintzea. Alvaro Gonzalez zinegotziak adierazi zuen Udalak eta udal erakunde autonomoek Interneteko sarbide libre eta doakoa eskaintzen dutela udal eraikinetan eta inguruetako 30 gunetan. Gonzalezen ustez, bide publikoan wifi libre eta dohainik eskaintzeko aukerak «zenbait oztopo» ditu: «legalak eta teknikoak». Bestalde, PPren beste mozio bi onartu zituen Udalbatzak: bata, udalerriko hondartzetan segurtasun-armairuak ipintzeko, gutxienez udan, baina ez aurtengo hondartza-denboraldian; bestea, Familien Nazioarteko Egungaz bat egiteko eskaera izan zen. Ciudadanos taldearen mozio bat ere onartu zen, San

Inazio plaza zaharbertzeko azterlan bat egiteko, eta, era berean, jolasen esparrua modernizatzeko; horretarako, herritarrek parte har dezaten proiektu bat egingo litzateke auzokideek proposamenak egin ditzaten. Miramar kaleko asfaltoko eta espaloiko kalteak konpontzeko ere eskatu zuten.

Bestalde, EH Bilduk mozio bat egin zuen, Itzubaltzeta/Romon eta Areetan nagusien etxearen etorkizuna eraba-

kitzeko galdeketa bat proposatuz. Horren bitartez jakiteko ea Ibar Nagusien Etxea Romo Kultur Etxe berrira eraman beharra dagoen ala ez. Mozioa EAJ, PSE-EE eta PPK ezetsi zuten. PPK uste du kontsulta erabiltzaileei baka-rik egin behar zaiela. EAJk azpimarratu zuen proiektua «ona» dela Getxo osoarentzat. Azkenik, GUK eta Ciudadanos alderdiek, berriz, EH Bilduren proposamena babestu zuten. ◀

Udalbatzak dispertsioa gaitzetsi du

EH Bilduk mozio bi aurkeztu zituen euskal presoen dispertsioaren harira. Etxerat elkartearen izenean, lehenengoak «dispertsio-politikaren eta urruntzearen desaktibazioa» eskatzen zuen, baina EAJ eta GUK abstenituta, baztertu egin zen. Bigarrenari EAJk zeharkako zuzenketa eginda, euskal presoen sakabanaketa-politika gaitzetsi zuen Udalbatzak, «ez datorrelako bat nazioarteko gomendioakaz, eta presoen eta euren senideen giza eskubideak urratzen dituelako». EAJk eta GUK-k alde bozkatu zuten. ◀

Jabekuntza Eskolen Sarearen topaketarako izen-ematea

Egainaren 3ra arte, barikura arte, Egongo da zabalik izena emateko epea Bizkaiko Jabekuntza Eskolen Sarearen ikasturte-amaierako topaketara joateko. Getxok, Basaurik, Ermuak eta Ondarroak osatzen dute Jabekuntza Eskolen Sarea. Oraingoan, jardunaldia ekainaren 11n izango da, Basauriko Marienea Emakumeen Etxean. Bertan, gai hau landuko dute: «Emakume errefuxiatuen egoera, begirada feministatik».

Jardunaldia goizeko 10:30ean hasiko da, eta «Emakume eta neskato errefuxiatuak ikustarazi ditzagun» goiburugaz berbaldia egingo dute, Begoña Freire Crespogaz, Amnesty International elkartearen emakumeen talde-

ko kide da bera. Osteen, 11:15ean, SOS Errefuxiatuak plataforma aurkeztuko dute, eta ondoren, hainbat eztabaidan arituko dira. Hori guztia amaitu eta gero, Tirante taldeak *Tras la frontera* ikuskizuna eskainiko du San Fausto plazan. Azkenik, jardunaldiari amaiera emateko eta triapak behar bezala asetzeko, bazkaria egingo dute Marienea Emakumeen Etxean bertan.

Jardunaldian parte hartu gura duten emakumezkoek alde aurretik izena eman beharko dute, hilaren 3a baino lehen, Getxoko Udaleko Berdintasuneko Zerbitzuan edo berdintasuna@getxo.eus helbide elektronikoaren bidez. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da, aurretik eskatuz gero. ◀

Hilabete amaieran zozkatuko dituzte Alangoko 145 BOEak

Algortako Alango auzoko 145 Babes Ofizialeko Etxebizitzak (BOE) alokairuan esleitzeko zozketa egingo du Getxoko Udalak, hilaren 30ean. Zozketa 12:00etan hasiko da, Itzubaltzeta/Romoko Gobela kiroldegian. Udalak eskutitza igorriko die onartutako eskatzaile guztiei, eta zozketaren inguruko xehetasunen berri emango die. Onartuen behin betiko zerrendaren eskabide guztien artean egingo da zozketa, jendaurrean eta notarioaren aurrean. Etxebizitza horiek denak, euren garaje eta trastelekua-kaz, 15 urterako alokatu ahal izango dira; epealdi hori igarota 75 urte bete arte, berriz, gainerako azalera-eskubidea erosteko aukera edukiko dute eslei-



pena eskuratu duten pertsonen, babes ofizialeko etxebizitza bezala. Errentako etxe horien lehenengo promozioan, 2 logelako 86 etxebizitza egongo dira, logela bakarreko 34, eta 3 gelako 19. Mugitzeko zailtasuna dutenentzat izango dira beste 6 etxebizitza. ◀

info+: 944 660 000 / www.getxo.eus

Unai
Taberna · Jatetxea

Algortako Etorbidea, 96. 48991 Getxo
94 466 16 61 · tabernaunai@hotmail.com

EKIN
TABERNA · JATETXEA

Bolue 4, ALGORTA
94 608 04 62

GAVRKO
1967

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

ikasi eta bizi izandakoa ez duzu ahaztuko

UDAKO ESKAINTZA 2016 CURSOS DE VERANO

aek Gurena ikasteko para enlendaricis, pour se compléter

URIBE KOSTAKO AEK

UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

Leioa 944646063 · lamia@aek.eus
Getxo 944304734 · lauaxeta@aek.eus
Plentzia 946773607 · jentilbaso@aek.eus
Gorliz 946773646 · jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK
www.aek.eus/blogak/uribekosta/
www.aek.eus

Getxo

Domekan Erabakiaren Adierazpena aurkeztuko du GEDk

Getxoko Gure Esku Dago taldeak *Erabakiaren plaza* ekimena ezagutaraziko du ekainaren 5ean. Horretan parte hartzera dei egin die herritar guztiei.



Maiatzaren 21ean egin zuten Adierazpenaren aurkezpena, San Nikolas plazan.

Gure Esku Dago herritarren ekimenak bultzatutako Getxoko Adierazpenagaz bat egin dute jardunean dabilzan zein zinegotzi izandako ia 30 hautetsik; horien artean, lau alkate ohi ere badira. Iragan maiatzaren 21ean egin zuten erabakitzeko eskubidearen aldeko agerraldia, antzinako udaletxearen aurrean. Erabakiaren Adierazpenaren alde daudela adierazi zuten, eta parte hartzera dei egin zuten ekainaren 5ean, domekan, Algortako Biotz Alai plazan Adierazpena aurkezteko egingo duten ekitaldian.

Agerraldiaren lekua ez zuten auzaz aukeratu. Izan ere, udaletxea izan zenaren agerlekua baliatu zuten akordura ekartzeko, behinola, Jose Antonio Agirre Getxoko alkate zela, Getxoko Udalak euskal errepublika aldarrikatzeko adierazitako arrazoia: «herriek, libre determinazioaren bidez, beren burua gobernatzeko duten ezin kenduzko eskubide naturala» dutela. Getxoko GEDk azaldu duenez, 85 urteren ostean, «zenbait alderdiren izenean zinegotzi izan diren eta gaur egun diren gizon eta emakumeok berretsi dute herriek, gizarte politikoki antolatuek, modu libre, baketsu eta demokratikoan erabakitzeko eskubidea dutela, erabaki librea da-eta herri solidarioago eta itxaropentsuago bat lortzeko bidea». Joan den maiatzaren 21ean San Nikolas plazara bertaratutakoek ize-

nean, hitza hartu zuten helduenak eta gazteenak, Francisco Urretxua alkate ohiak eta Maite Arraiza jarduneko zinegotziak: «1979tik hona Getxoko zinegotzi eta alkate izan garenok eta egun ere garenok berretsi eta aldarrikatu gura dugu herriek, gizarte politikoki antolatuek, modu libre, baketsu eta demokratikoan, erabakitzeko eskubidea dutela». Horregatik, «demokrazian» sinetsi egiten dutela aldarrikatuta, eta «herri bat garela, herritarren garaia dela, eta erabakitzeko eskubidea dugula partekatzen dugulako», ekainaren 5ean Biotz Alai plazan aulkia hartuko dutela iragarri zuten. Halaber, getxoartzar oro gonbidatu zituzten aulkia hartzera (txartelak salgai daude), hitza hartzera eta erabakitzeko eskubidea herritarren esku dagoela indarrez adieraztera.

Erabakiaren plaza, domekan

Ekainaren 5eko ekitaldia eguerdiko 12:00etan hasiko da, Algortako Biotz Alai plazan. Bertan, erabakitzeko eskubidearen gainean ezberdinen arteko adostasunetik «jaiotako» adierazpena aurkeztuko dute. Horrez gainera, eguerditik aurrera, Otxandategi taldeko joaldunak, Samba Skull batukada, Laura Mintegiren narrazioa, Jone Uriaren bertsoak, Sangre Boliviana eta Elai Alai taldeen dantza ikuskizunak, eta musika-emanaldiak egongo dira, besteak beste. ◀

Hilaren 17ra arte aurkez daiteke saninazioetako kartela

Martxan da Algortako San Inazio jaietako kartel lehiaketa. Aurten, gainera, hainbat berrikuntzagaz dator lehiaketa: batetik, kartelak DIN A3ko neurrian entregatzea nahikoa izango da. Hori bai, CDa ere aurkeztu behar da kartelaren irudi digitalizatuz. Bestalde, Eztabaida Gunea itxita dagoenez gero, lanak Villamonteko kultur etxera eraman behar dira ekainaren 17a baino lehen. Herri-bozketari dagokionez, Internet bidez egin beharrean, aurkeztutako kartel den artean, jendeak gogokoena bozkatzeko aukera izango du ekainaren 25ean, zapatuan, San Nikolas plazan. Lehiaketara aurkeztu diren kartel denak erakutsiko dituzte egun horretan,

12:00etatik 14:30era, plazako frontoian. Azkenik, Algortako jai-batzordeak kartel lehiaketaren saria handitu du aurten; hala, kartel irabazlearen egileak 300 euro jasoko ditu, eta jaietako irudia (liburuxketan eta kartelean) izango da bere lana.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, edozeinek parte har dezake lehiaketan, eta gaia librea da. Hala ere, egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Gaia librea bada ere, ohi den legez, aurkeztutako lan guztiek honako goiburuak eduki behar dituzte: «Algortako Saninazioak 2016», «Uztailak 28-31» eta «Jaietan ere euskaraz». ◀

info +: www.hiruka.eus

Baseri-mundua ezagutzeko: Talka Eguna, Itzubaltzetan

Baserri-mundua herrira ekarri gutxian, Talka Eguna antolatu du Itzubaltzeta/Romoko Branka kultur elkarteak ekainaren 4rako, zapatua. Hala, goizean goizetik, Itzubaltzeta auzoa baserri-giroan murgilduko da, 09:00etatik aurrera, sukaldaritzan txapelketagaz. Ondoren, 10:00etan baserriarren artisau-azoka egingo dute, Kolas plazan. 14:00etan sukaldaritzan txapelketaren platerak aurkeztuko dituzte, eta 15:00etan herri-bazkaria izango dute Gobelondo kalean. 17:00etan kuadrilen arteko abilezia jokoak (Sta. Eugenia) eta umeentzako jolasak (Ibaiondon) egingo dituzte. Azkenik, 20:00etatik aurrera poteo musikatu egingo dute, Santa Eugenia plazatik abiatuta. ◀

Gurasoentzako ibilbide ekologikoa antolatu dute

Getxoko Ibilbide Ekologikoen lantaldeak irteera bat antolatu du domekarako, ekainaren 5ean. Ekimena udalerriko ikastetxeetako ikasleen gurasoei dago zuzenduta, euren seme-alabakaz lantaldeak egiten duten lana ezagutarazteko. Ibilbidea 10:00etan irtengo da Andra Mariko kiroldegitik, eta 13:00etan bukatuko da, Algortako Portu Zaharrean. Ibilbidean zehar udalerriko historia azalduko dute, ikasturtean ikasleak egiten duten bezala. Azalpenak euskaraz izango dira, baina, beharrezkoa izatekotan, gaztelaniara itzuliko dituzte. Ibilbide Ekologikoen programa LH 5. eta DBH 2. maila arteko ikasleei dago zuzenduta. ◀

izen-ematea: irtekolokoak@gmail.com

SARTU GURE
WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



cianoplan
DIGITAL PRINTERS

Erandoio



Pintxoak 1,30 euroan egongo dira salgai.

Pintxo lehiaketaz gozatzeko aukera

Aste-akabu honetan eta hurrengoan, ekainak 3, 4, 5, 10, 11 eta 12, Erandio Pintxoan lehenengo pintxo lehiaketak zapore ona utziko die erandioztarrei. Altzaga eta Astrabuduko 24 estatutan pintxo bereziak probatzeko aukera izateaz gainera, auzokideek eta bisitariak 300 euroren zozketan hartuko dute parte, pintxoaren kartillan botoa eman eta berau entregatzen badute. Horretarako, pintxo-zaleek sei jatetxe edo taberna puntuatu beharko

dituzte, eta seiei dagozkien pegatinak eskatu. Auzo bietako establezimenduetako pegatinekin agertu beharko dute kartillan. Honako ordutegia izango dute pintxoak dastatu eta puntuatu nahi dituztenek: barikutik domekara, goizeko 12:00etatik 15:30era; eta barikutik zapatara, 19:00etatik 22:00etara ere bai. Behin kartilla beteta, ostatu parte-hartzaileraren batean utz daiteke. 300 euroren zozketa ekainaren 17an egingo dute, Behargintzan, Altzagako Bekoa ikastetxean, 14:00etan. ◀

Erika Bilbao eta auzi berekoak sostengatu ditu Udalbatzak

Erandioko Udalbatzak arreta jarri dio Erika Bilbao Barcena erandioztarren eta beragaz batera 8/2013 auziagatik Espainiako Auzitegi Nazionalean epaitutako beste 8 euskal herritarren egoerari. EAJk eta EH Bilduk batera aurkeztu, eta Udalbatzak onartutako moztioan, «jarduera politikoa-ri jazarpen judiziala» egitea, «tortura erabiltzea» eta «emakumeen kontrako

biolentzia eta biolentzia matxista gaitzetsi» dituzte, batez ere, «funtzionario publikoek» eragindakoak badira. Aldi berean, «oinarrizko eskubideen urraketarik berriro ez gertatzeko neurriak» eskatu ditu Udalbatzak, baita «biktimei eragindako sufrimenduaren aitortzea eta erreparazioa» ere. Azkenik, Ekinen kideek espexera ez joateagatik, «poztasuna» agertu du Udalak. ◀

Ganemos Erandio udal taldeak Rafa Vaquero baztertu du

Rafa Vaquero iazko udal hauteskundeetan Ganemos Erandio herri-hautagaitzaren zerrendaburua dardorduko ez da udal talde horretako kidea. Ganemoseko gainerako hiru zinegotziek Erandioko Udalbatzari azaldu diotenez, pasa den maiatzaren 12an, Vaquero kanporatu zuten, hauteskunde-plataformaren arautegia eta «kode etikoa ez betetzea» egotzita. Besteak beste, ardurak ez txandakatzea, informazioa ezkutatzea eta ezabatzea, eta hauteskunde-programa nahierara edo alagala aldatzea leporatu zizkioten. Vaquerok ez du adierazpenik egin, eta zinegotzi segituko du. ◀

Udal Gaztedirekiko konpromisoa berretsi du Erandioko Udalak

Azken Udalbatzan aho batez horrela onartuta, Erandioko Udala bat etorri da Udal Gaztedi foru-erakundeak jarduteko izango duen araudi berriagaz. Era berean, zinegotzi erandioztarrek eskumenak eman dizkiote Mikel Filgueiras jeltzaleari, foro horretan udal ordezkaria izan dadin. EH Bilduk eskatu zion Erandioko gazteen ikuspegia eramateko, Udal Gobernuarena baino. Udal Gaztedi entitatea 2011n sortu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak, Eudelegaz batera, udalerrietako gazteek foru-politikan ekarpena egin zezaten. Pasa den apirilean, arautegia berriro zuten Aldundiak. ◀



Bertso-paper lehiaketaren irabazleak. © ERANDIOKO UDAL EUSKARA ZERBITZUA

Ipuinek, narrazioek eta bertsoek sariak dituzte

Maiatzaren 20an, bertso- eta kanta-topaketa egin zuten Erandioko gazteek. Egokiñe Angulo zinegotziak V. Bertso-paper Lehiaketaren sariak eman zizkien Oier Agirre, Naia Ibañez, Endika Real de Asua eta Naroa Garcari. Handik egun batzuetara, ipuin eta narrazioen 15.

lehiaketaren sariak eman zituen Joseba Goikouria alkateak. Imanol Garate, Itsaso Garcia, Iraide Fernandez, Markel de la Fuente, Enara Martinez, Aroa Montes, June Elozegi, Eneritz Yarince Paiz, Oihane Orbea, Nahia Valladares, Esti Velez, Aingeru Santamaria eta Nadin Regueiro izan ziren irabazleak. ◀

hiruka
zaitez!

Urtean
35€
baino ez



Trukean:
zozketak,
sariak ia astero,
astekaria eguaztenero...



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Aura izanez gero, etxera erango dizugu egunkaria!

txakoli
mota
gane
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34
(Akarlanda parkea) Golerri-Erandio
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



portu
zaharra
bar
Portu Zaharra kalea 35
48901 Algorta-Getaria
T. 94 464 29 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



Krisalida

JOXE
BELMONTE F. DE LARRINO A
Idazlea

Hiri modernoak, led farolak baino gehiago

Hiria, herria, modernizazioak arlo urbanistikoa gaintzen du. Paisaia urbana bezain garrantzitsua da bertan bizi den komunitatearen mentalitatea (ohiturak, jarrerak,...) aldatzea; bidegorririk zoragarriena hutsik egongo da herritarrak bizikleta hartzeko ohiturarik ez badu.

Beraz, modernizazio prozesua herri horren komunitatearen hezkuntzari lotuko zaio, estu-estu. Kontuz gero, baina. Hezkuntza, hiri modernoan, ez da arazko irakaskuntzara murrizten, ezta molde tradizionaletara egokitzen ere. Heziketa, prozesu etengabea da pertsona baten bizitzan, eta hezkuntza-prozesuetan ez dago hierarkia egonkorrik, hau da, alabak amari irakatsi ahal dio, ikasleak irakasleari, gazteak zaharrari, edo herritar arruntak herritar arruntari.

Hiru agente hezitzaile diren eskola, familia eta komunitatearen artean lankidetzara behar da, elkarlana, loturak, harik eta sare trinkoa osatu arte, *on line* eta, batez ere, *off line*.

Inor ez da *omnijakiturik*; irakasleek ez dute ikasten amaitu; gurasoak, guraso izateko, ez dira ikasita jai; komunitatea -gizarte- etengabe aldatzen ari da, eta gaur balio duena bihar ez da balekoa izango. Jakin beharrek, kurrikulua, hazkor eta aldakor da; guztien ekarpena behar da etengabeko eraikitze lan hori burutzeko. Eta eraikitze kolektibo hori gerta dadin, sarea trinkotu dadin, ezinbesteko baldintza da herritarren partaidetza, gobernu kontuetan ez ezik (herriko plaza nola atondu) politikarien tutoretzarik gabekoetan ere (elikagaien bankuak); gizarte demokratikoak herritarrak era autonomoan mugitzeko tresna nahikorik izan behar du.

Hiri modernoan ezaugarriak, laburbilduz: heziketa etengabea, elkarlana eta partaidetza. Eta leds. ◀

Leioa



Txikienguzko ekitaldi ugari egongo da. © LEIOAKO UDALA

Txorierriko jaien txanda heldu da

Arrastiko 18:00etako txupinazoagaz eta kuadrillen jaitsieragaz emango die hasiera bariku honetan, ekainak 3, Txorierriko jaien. Hiru egunez, jarduera ugari gozatzeko aukera edukiko dute ume eta helduek. Berbarako, zapatu eta domekan lehia-keta sorta handia izango dute aukeran

Txorierrira hurbildutakoek: tortilla, igel-toka, boloak, txapel-jaurtiketa eta gozogintza, besteak beste. Bifor jai-batzordeak antolatu ohi ditu festak. ◀



Txorierriko jaien egitarau osoa hemen aurki dezakezu.

Gaztelueta auziko epaiaren kontrako helegitea ipini dute

Bizkaiko Lurralde Auzitegiako Fiskaltzak helegitea aurkeztu du Emilio Lamo de Espinosa Gaztelueta auziko instrukzio-epaileak orain gutxi plazaratutako ebazpenaren kontra. Izan ere, «ados» dago magistratuak egindako irakurketagaz; baina uste du beste delitu-mota bati dagozkiola Gaztelueta ikasle-ohi batek salatutako erasoak. Horri jarraiki, adierazi du 9 urtekoa izan beharko lukeela gazte horren irakaslea zenarentzat eska daitkeen gehieneko zigorrak, 10 urtekoa izan beharrean. Lamo de Espinosak erabaki beharko du Fiskaltzaren errekurtsioa ontzat hartzen duen edo ez. Ondoren, Bizkaiko Lurralde Auzitegiak erabakiko du ahozko epaiketa egingo den ala ez.

2008. urtetik 2010. urtera bitartean, 12 urteko ikasle bati sexu-abusuak egitea leporatzen diote Gaztelueta irakaslea zenari; Emilio Lamo de Espinosa epaileak uste du ustezko erasotzailea epaitzeko «arrazoizko kriminalitate-zantzuak» daudela. «Jarraikako sexu-abusu delitua» egotzi dakiok. Aipatutako delitu horiek 4 eta 10 urte arteko espetxe-zigorra ekar diezaiokete akusatuari. ◀

Udal Gobernuak beste liberatu erdi bi edukiko ditu

Leioako EH Bilduk jakinarazitakoaren arabera, EAJK eta PSE-EEK lalnaldi erdiko liberatu bana hartzea onartu du Udal Gobernu Taldeak; «horrek 57.022 euroko igoera suposatuko du Udal Gobernu Taldearen errepresentazio-gastuetan», koalizio ezkerzaleak kritikatu duenez. EH Bilduk gaineratu duenez, «gaur egun, EAJK eta PSE-EEK dauzkaten lau liberatuei gehituko zaizkie bi berriek. Bitartean, oposizioko udal taldeok liberaziorako aukera barik jarraitzen dugu».

Esnatu Leioaren ustez, «gobernuaren eta oposizioaren arteko desoreka areagotzen du» horrek. Ruben Belandia alderdiko bozeramaileak salatu duenez, «onartu berri den tokiko administrazioaren euskal legeak oposizioko lehenengo alderdiari liberatu bat edukitzeko aukera ematen dio, baina gainerakoentzat ez du ezer bermatzen». Esnatu Leioari egokituko litzaioke liberatu hori. Belandiaren ustez, ordea, «alderdi guztiek» eduki beharko lituzkete udal lanetarako gutxieneko baliabideak. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

hau hezkuntzatik
ander deuna batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus

Sopela

Boluntarioak behar dituzte



Guatemalako Patzicia herrian dago lagundu gura duten kaqchikel-eskola. © JOANES IGEREGI

Guatemalan egon zenean, lan-kidetzan jardun zuen Joanes Igeregi borondatezko langile sopeloztarrak, kaqchikel hizkuntza berreskuratzeko lanean zebiltzan lau ikastetxegaz. Orain, ikastetxe horietako bati diruz laguntzeko ekimenak antolatzen dabil, hainbat lagunegaz batera; eskola Patzicia herrian dago. Ekainaren 11n, Ander Deuna ikastolaren urte amaierako jaiak

egin dituzte ekitaldiak; bertoko gurasoen elkarteak baimena eman die. Batetik, Guatemalako janaria salduko dute. Bestetik, Guatemalan eta Patziciako ikastetxeko eraikuntza-lanei egindako argazkien erakusketa ipiniko dute. Kontuak horrela, sukaldean, salmentan edo erakusketa prestatzen laguntzeko boluntarioak behar dituztela jakinarazi dute. ◀

info+: jigeregi@gmail.com

Edestiaurre arkeologia-taldea aurkeztuko dute hilaren 4an

Zapatu honetan, ekainak 4, Edestiaurre arkeologia-elkartea aurkezteko ekitaldia egingo dute Sopelako Kurtzio kultur etxean, 11:30etik 14:00etara; sarrera, doan. Taldearen nondik norakoez berba egiteaz gainera, hainbat gai jorratuko dituzte: Jose Rios-Garaizarrek Bizkaiko historiaurrea izango du hizpide; Diego Garatek lurraldeko Paleolitikoko arteaz jar-

dungo du; eta azkenik, Iñaki Libanok historiaurreko teknologiaren erakustaldia egingo du. Gaztelaniaz egingo dute denek.

Arkeologian adituak diren profesional eta afizionatu talde baten ekimena da Edestiaurre. Gaur egun, Uribe Kostako eskualdean garatzen dabilta ikerkuntza-egitasmoak. ◀

info+: www.edestiaurre.org

Sopelako Turismo Bulegoa

PUBLIRREPORTAJEA



Itsaslabbarrak eta Sopelako geologia ezagutzeko egundoko aukera.

Bisita gidatuak uda osoan!

Memoria historikoa eta geologiaren ezagutza indartzeko asmoz antolatutako esperientziak

Sopelako Turismo Bulegoak itsaslabbarrerako gune geologiki interesgarrienak eta 36ko gerrako Burdin-hesiaren aztarnak ezagutzeko aukera emango du, ekainetik abuztura bitartean, erabat doan.

Batetik, ekainaren 5ean eta 26an, Sopela eta Berangoko mendietan geratzen diren Burdin-hesiaren aztarnak bisitatzeko ibilaldiak eskainiko dituzte, bisitariak herriko memoria historikoa ezagutzeko aukera izan dezaten. Bisitak 4 ordu iraungo du eta mendirako jantzi eta oinetako egokiak erotea gomendatu dute, egun horretako eguraldia kontuan hartuz. Urko kiroldegiko aparkalekutik irtengo dira.

Bestetik, herriko geologia ezagutzeko asmoz, itsaslabbarreran zehar 2 ordu inguruko ibilbide gidatua egiteko eskaintza abian jarriko du, hauek dira hitzorduak: uztailaren 3an (irteera, 10:00etan) eta 23an, zein abuztuaren 20an (irteera, 11:00etan). Irteera-lekua turismo-bulegoa izango da.

Aldez aurretik izena eman beharra dago, batean zein bestean. ◀

Informazio gehiago eta izen-ematea:

TURISMO BULEGOA
Loiola Ander Deuna kalea, 28

INFORMAZIO PUNTUA
Aretxabaleta Enparantza, 1

Telefonoz: 944 065 519

E-mailez: turismo@sopela.eus

Burdin-hesiaren aztarnak, Sopela eta Berango artean.

2016/06/01 - 2016/09/18

SopelBUS

Eguneroko
zerbitzua



BI IBILBIDE:

- Egoitza > Atxabiribil.
- Larrabasterrako metroa > Arriatera.

PREZIOAK

- Joanaldia: 0,80€
- 10 bidaiako bonua: 5€ errolatuak.
- 10 bidaiako bonua: 7€ ez-errolatuak.

ORDUTEGIA:

Goizeko 10:00etatik 20:45ak
bitartean, 30 minutuan behin.

herria gara
Sopela
SOPELAKO UDALA

Patukos
Akilino Arriola, 6.zb. SOPELA

%10
DESKONTUA
KUPOI HAU AURKEZTUTA

*Baliagarria 2016 - 06 - 30 arte

www.patukos.net
SOPELA - EIBAR



Arkatza belarrian

UNAI
ETXEBARRIA BEITIA
Arkitektoa

Bide berean
barna, batetik
bestera biratuz

Gaur inoiz baino goizago esnatu naiz. Jarraian logelako ispilu pare-hurbildu eta arkatza zorroztu dut nire isla deskribatu nahian. Z ardatzean; eserita burutik lurrera 1.310 mm-ko altuera dago, begietatik lurrera 1.190 mm, sorbaldetatik lurrera 1.030 mm, ukondoetatik lurrera 690 mm, belaunetatik lurrera 630 mm eta orpoetatik lurrera 100 mm. X eta Y ardatzetan; nire besoek, behatzaren gehieneko helmena kontuan hartuz, 1.640 mm luze dute; nire bizkarrak berriz 455 mm zabal ditu eta ni neu, aulkia eta kanpo geratzen zaizkidan oin zatiak kontuan hartuz 1.170 mm luze eta 750 mm zabal naiz.

Badakit, errepikakor xamar nabil, baina oraindik nire izatearen xehetasun dexente falta zaizkit: nire eserlekuak 500 mm altu, 430 mm luze eta 450 mm zabal ditu hurrenez hurren; nire beso-euskarrien altuera 730 mm eta 760 mm bitartekoa da; nire oin-euskarriek osterara 140 mm altu dute eta azkenik nire gurgil kutunek 600 mm eskaseko diametroa dute.

Orain bai, bukatzeaz nago; baina tira, behin eskua berotuta gure inguru hurbila ere zehazten jarraitu nahiko nuke: espaloi estuegiak, zebra bide malkartsuegiak, kale altzari oztopotsuegiak, arrapala maldatsuegiak, nasa baxuegiak... eta horrela, egunerokotasunean sustraitutako arantza ezkutuak miatuz, astekari osoa bete nezakeela ohartu naiz.

Berandu egin zait berriro! Gogoz kontra arkatza albo batera utzi dut eta tonu apalean nire bi gurgilei ene kontsolamendua xuxurlatu diet: «Pertsonak ez gara desgaituak, espazioek desgaitzen gaituzte». Hirurok astelehen goizero, aldats-gora eta presaka, sinesmen berarekin ekiten diogu lanerako bide aldaezinari, bultzada bakoitzeko atzamar puntekin elkarrizkatzeko gaitzen diogun bitartean. ◀

Plentzia

«Lotsa! Pena bezain lotsa handia»

Solidarias en acción taldeagaz, bost joan ziren Greziako errefuxiatu kanpamenduetan laguntzera; hemen batutako diruagaz, han erosi zuten bertan behar zutena; sei-zazpi lagun ibili dira hasieratik ekimena antolatzen; horietatik hiru uribekostarrak dira.



Marin eta Antolin. Harremanetarako eta info+: solidariasenaccion; facebook, twitter eta youtuben.

IRANTZU SAGARMINAGA ETXEBARRIA ▶

Solidarias en Acción taldean dabilta Plentziako Naroa Azuaga Fuentes, Gorlizko Dida Marin Astobieta eta Algortako Sira Antolin Labanda; eurakaz batera, Leire Jimenez Gonzalez (Castejon), Lorena Barroso Gonzalez-Arriluzea (Gasteiz) eta Monica Díaz Rodriguez (Vigo).

Zelan prestatu zenuten dena?

Naroak abiatu zuen dena. Sare sozialetan bidez, bere asmoa zabaldu, eta hala batu ginen taldetxo bat. Antolatutako elkartzun-ekimenaren diruagaz, han erostea erabaki genuen, hango benetakoa beharrei erantzuteko. Hemen, hasieran, handia zen frustrazioa, hamaika lekutara idatzi, eta inork ez zigorako ezer zehazten: «Behar zaituztegu, etorri!» esan bai, baina ez nora, ezta noiz ere. Harik eta Norvegiako Drapen i Havet GKEak erantzun arte: Pireon behar gintuztela (Atenasko portu bat); han geldiarazi dituzte 3.000 bat lagun. Ez du Idomenikoak besteko oihartzunik, eta ez dago hainbeste boluntario. GKEak egiten zuen janaria prestatzen eta banatzen lagundu dugu guk; eskasa da estatuak ematen dien jatekoa, kalitatean eta kantitatean: kanpamentutik irteten zirenak zenbatzen zituztelako, baina sartzen zirenak ez; eta

egoera aldakorra da egunetik egunera. Egunetik egunera aldatzen delako ere, ezin dituzte eman hasieran guk hemendik eskatutako erantzun zehatz haiek...

Hara heltzean, zer sentitu zenuten?

Lotsa! Pena bezain lotsa handia! Geu ere bagara arduradun. Emandakoa laguntza-ale txiki bat baino ez da izan; aurrerantzean, hemen dago laguntzeko modurik onena: egoera ezagutaraztea, presioa egitea... Zu eta biok bezalako pertsonak dira, inork esan dezake guri ezin lekigukeela halakorik gerta?! Dirua bazeukaten: 1.000 eta piku euro ordaintzen dituzte Turkiatik irletarainoko txartela, gainontzekoak kontuan hartu barik... Beste tarreak, oinez edo gainezka doazen autobusetan egin behar dituzte, batzuetan pistolaz behartuta sartzera; hainbaten diru-nahi asezi-nak ganadu bihurtuta... Kanpamentu batzuetan, presoak bezala tratatzen dituzte. Argi zioten euren herritik ihes egin zutela han ez zegoelako etxe bat ere zutunik! Denbora luzean eskolara joan ezin izan duten zenbat ume! Kanpamentuetan ez dago eskolarik; boluntarioen hizkuntza-ikastaroren bat... Emakumeak eta umeak dira gehienak, eta gehienek badute European, non edo non, senideren bat: aita, semea, neba... Haiei jarraika eurak abiatzean, danba! geldiarazi dituzte! Umedunak Grezian

erdituta ere, umea ez da greziarra; ez du lege-babesik. Siriarez gainera, badira afganiarrak, kurduak, irakiarrak, irandarrak... Siriarez asko entzuten da; apurka, irteteko aukera gehiago dituzte, asilo-eskubidea onartzen dietelako; afganiarrei, ez. Afganistanen gerrarik ez dagoela esaten diete, talibangandik ihesi dabilta ordea! Etsi-go! Kanpamentutik irteteko zigilu bat behar dute; zigiluduna herrira joan daiteke, abokatu bila, paperen kontua arintzeko; kanpamentutik oso zaila delako hori tramitatzea... Ostera, zigilua lortzea zaila da, hitzordua Internetez egin behar dute, baina ez daukate; gurgil zoroa! Abokatuak ere behar dituzte. Han utzi genituen egunero ahalegin bera egiten, zalantzez beteriko bihar munari zain... Kanpamentua ixteko arriskuaz galdetuz, ezetz... Idomenin ere uste hori izandakoak ziren!

Orain, hemen, zer mezu hedatu gura zenukete? Jendarteari, arduradunei...

D.M.: Konturatu gara garrantzitsuenak dela hemen jardutea: jendea kontzientziatu, sentsibilizatu; gure gobernuari presioa egin, bultzarazi... Eta ez ditza gun ahaztu! Horretan ahalegintzen dabilzalako: kanpamentuetan sartu eta han utzi, albistegietan ager ez daitez... Kalera atera behar dugu; ekainaren 20ko manifestaziora, eta beste. S.A.: Gertatzen ari dena hedatzen segitu... Europa da arduradun handiena, eta gu europarrok. Armak ematen dizkiegu, eta traba egiten digutenean, ateak itxi! Ihesean datorrenari, ateak itxi?! Zu eta bion moduko pertsonak! Mafiak daude, askok ateratzen dio etekina egoerari... Eta horrek denak Mendaldearen abala eta bermea dauka! D.M.: Bazter ditza gun zentzu bako arreitzi eta beldurrak: «ehun mila etorrita, gero, hemen zer?», Algortara bi helduko lirake; Gorlizera, lau... S.A.: Nork utzi nahi du bere etxea, beharrik ez badu?! Itsasoan betiko gaitzera arriskatzeko badira, ondasun denak utzita, ez da izango bestelako aukerarik ez dutelako?! ◀

Elkarrizketa osorik: hiruka.eus
Harremanetarako:
solidariasenaccion2016@gmail.com

Berango



Guztira, 11 etxola ipiniko dituzte Sabino Arana kalean.

Domekan egingo dute XVI. Ardo Eguna

Urtero legez, Berangoko ekoizleek Ardo Eguna antolatuko dute. Aurtengoa XVI. edizioa izango da, eta hilaren 5ean, domekan, egingo dute: herriko 18 ardogilek etxean egindako 600 botila txakolin eskainiko dizkiete bertaratuko diren ardozale guztiei. Eguerditik aurrera ekingo diote festari, 12:00etatik 15:00etara, Sabino Arana kaleko Nagusien Etxeko plazan. Bertan, 11 etxola egongo dira: bederatzik ardoa eskainiko dute, eta etxola bana egongo da ogia gaztagaz

edo txorizoagaz banatzeko. Iragarri dutenez, ekoizleek prezio ezin hobean salduko dute euren produktua. Izan ere, urtero diseinatzen duten kopa berezia lau euroan erosita, gura beste ardo eta ahal beste pintxo hartu ahal izango da; antolatzaileen arabera, 65 kilo txorizo egosi eta 9 kilo gazta banatuko dituzte. Hala bada, zintzurra bustitzeaz gainera, sabela betetzeko aukera ere egongo da Berangon. Esan barik doa, urtero legez, txakolina maite dutenentzako egundoko hitzordua izango dela. ◀

Hiri-udalekuetan izena emateko epea zabalik dago

Ikasleek 2015-2016 ikasturtea amaitzear dute; hori dela-eta, udara begira, Berangoko Udalak Uda Gaztea egitasmoa antolatu du. Hiri-udaleku horiek uztailearen 5etik 22ra arte izango dira, eta 15 eta 18 urte arteko neska-mutilei zuzenduta daude. Tarte horretan, ikus-entzunezko ipuin laburren tailerra, robotika-tailerra, sukaldaritza-saioak eta ur-guduak egingo dituzte. Halaber, egun osoko lau irteera egingo dituzte: ibilaldia itsaslabarretara, Bilboko itsasadarrera piraguan ibiltzera, Santanderreko basoparkera eta Gamarrako igerilekuetara. Parte hartzeko, ekainaren 10a baino



info+: www.berango.net

lehen izena eman beharra dago, Berangoko kultur etxeetan edo Gaztegunean. Berangon erroldatutakoek 90 euro ordaindu behar dituzte. ◀

Maite-Mindu berba goxoen eta irainen lehiaketa antolatu dute

Epertikere elkarteak Berangoko Maite-Mindu hitz goxoen eta irainen lehenengo lehiaketa prestatu du. Norgehiagokak kategori bi izango ditu: hitz goxoak eta irainak. Testuak euskaraz idatziko dira; 140 karaktere izan beharko ditu bakoitzak, gehienez. Edonork parte har dezake lehiaketan, adina, sexua eta bizilekua edozein izanda. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez

testu bi idatzi ahal izango ditu, kategoria bakoitzeko. Testuak ekainaren 26ra arte bidali ahaliko dira. Epaiketak fase bi ditu. Lehenengoan, epaileek 20 testu aukeratuko dituzte, 10 kategoria bakoitzeko. Bigarrenean, sareko bozkatze publiko bidez aukeratuko dituzte testuak. Irabazleek pertsona birentzako afaria edo bazkari bana jasoko dute. ◀

testuak bidaltzeko: epertikere@gmail.com

Urduliz

Elortzako hezkuntza-proiektua aurkeztuta

Parte-hartze handia izan da, ikastetxeko hezkuntza-proiektu berria diseinatzeko orduan. Festa batez aurkeztu zuten.

Pasa den zapatuan, jaialditxoan izan zuten Urdulizko Elortza Haur eta Lehen Hezkuntzako eskolan. Dereduko zentroak jendaurrean aurkeztu zuten urritik martxora osatzen ibili diren hezkuntza-proiektua. Hezkuntza-komunitateko kide gehienek parte hartu dute prozesuan: neska-mutilek, gurasoek, irakasleek, langileek eta Udalak. Lau urterik behin egiten duten proiekturako hiru batzar egitea aurreikusitako zuten, baina parte-hartze handiaren poderioz, bederatzik egin dituzte azkenean. Planteamendu pedagogiko berriaren arabera, neska-mutirik izan-

go dira ikasketen-prozesuaren protagonistak, eta hezkuntzaren lau zutoinak barneratzea izango dute erronka: eza gutzen, egiten eta elkarbizitzen ikastea, eta, aldi berean, izaten ikastea.

Elortzako kideek apustu egin dute eskola euskaldun eta eleaniztunaren alde, proiektu kohezitzaile, plural eta barneratzailearen bitartez. Zentroaren zereginak izango dira sormena bultzatzea, heziketa emozionala garatzea, ingurumenarekiko errespetua, eta empatia sustatzea, eta justizia, elkartasuna eta errespetua zabaltzea. Bide horretan, zentroak bizitza parte-hartzaile eta komunikatiboa izango du, ikasle bakoitzaren erritmoak bermatuz eta autonomia erraztuz, umeek barruan daramatzaten balioak eta trebetasunak kanporatzen laguntzeko. Eraikina zabaltzearen zain dago Elortza eskola, gela bi gehiago izango ditu-eta. ◀


Bizkaibus ospitaletik 200 metrora geratuko da, oraingoz

Vicente Reyes Garraio, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru-diputatuak jakinarazi duenez, Bizkaibus zerbitzua Urdulizko ospitalearen irekieraren arabera moldatuko da. Diputatuak adierazi du Bizkaibusen geraleku berria ospitale-

tik 200 metrora egongo dela, harik eta Urduliz eta Sopelaren artean ordezko bide bat jarri arte. Era berean, iragarri du Urdulizko Udalagaz hitzartu dela bide berria irekitzen denean, geralekua jarriko dutela ospitalearen aurrean, markesina berri batez. ◀

Ume gaixoen aldeko elkartasun-jaialdia

Urdulizko kultur etxeak ekainaren 9an, eguna, hartuko du Aimar del Pozo eta Alazne Rodriguez gaixotasun arraroak pairatzen dituzten umeen aldeko elkartasun-jaialdia. 19:30etik aurrera, Berangoko Simon de Otxandategi eta Sopelako Lagun Artea abesbatzek eta Iñaki Basabe bakarlarriak kantatuko dute. Gaupasa ere izango da. Aurkezle, Ramon Astika irrati-esataria ibiliko da. Sarrerak 5 euroan eros daitezke kultur etxean bertan. ◀



Gorliz

Labarrak, kostaldea eta ibaiak garbituko dituzte



Udalerriko boluntarioek garbituko dute domekan herriko kostaldea.

Bainu-denboraldiari behar bezala ekiteko, udalerriko kostaldea garbituko dute domekan, hilaren 5ean.

Aurton ere, herriko kostaldeaz eta inguruneaz gozaturan, Gorlizko Ugari Subtaldeko lagunek eta Goazen UP elkarteak hango hondartza eta labarrak garbitzeko hitzordua jarri dute hilaren 5erako, domekan. Aurtengoa bosgarren urtea izango da, ekimena

egiten hasi zutenetik. Hala, goizeko 10:00etan elkartuko dira Astone inguruan. Bertan, garbitzeko prest agertzen direnak taldeetan antolatu, eta euren artean banatuko dituzte garbitu beharreko tokiak. Egun horretan bertan ere, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute; hori dela-eta, Gorlizko Udalak oparixtoak banatuko ditu, 11:00etatik 14:00etara, udalerriko turismo bulegoetan.

Erreka eta ibaien garbiketa

Labarrak eta kostaldea garbitzeaz gain, Udalak argi du udalerriko errekek eta

ibaiak ere atondu behar direla bainu-denboraldirako. Hori dela-eta, Gorlizko hondartzan itsasoratzen diren hiru errekek garbitzeko prozesua abiatu dute, URA Uraren Euskal Agentziaren ekimenez. Hala, ubideen inguruetatik zuhaitz lehorrak kendu dituzte, uretara jausteko «arriskua» zutelako. Luis Manuel Lorenzo zinegotziak azaldu duenez, inguru horiek atondu beharra zegoen, bazterretan batez ere, adarrak eta bestelako hondakinak pilatzen joan direlako. Garbiketa-lanotarako, Europan eta EAEn indarrean dagoen araudia bete dute. ◀

Udako hainbat jardueratarako izena eman daiteke

Udaldiari hasiera eman baino lehen, Gorlizko Kultur Etxeak hainbat jardueratan izena emateko epeak zabalduko ditu hilaren 6an, astelehenean, esaterako: Gazte Aktiboa, 13 eta 17 urte bitarteko neska-mutilei bideratuta. Udan beste hainbat ikastaro ere egongo dira. Horiez gainera, Santiago jaietan buruhandi ibiltzeko izena eman daiteke daborduko; hiru ekimen horietarako inskripzio-epea hilaren 20ra arte egongo da zabalik. Azkenik, «Aurkezle euskaldun» aukeraketan parte hartzeko epea zabalduko dute, hilaren 22ra arte. ◀

info+: www.gorliz.eu

Pintura ikastaroko lanen erakusketa, ekainaren 3tik 5era

Ekaina heldu da, eta horregaz bate-bera, 2015-2016 ikasturteari amaiera emateko ordua. Hori horrela, udako oporrei hasiera emateko, eta ikasturte osoan ikasitakoa zein egindakoa erakusteko, Gorlizko Kultur Etxeak antolatutako gazte eta helduen pintura ikastaroan parte hartu duten ikasleek euren sorkuntzak erakutsiko dizkiete gorliztar guztiei. Hala, margolanak ikusgai egongo dira herriko erakusgelan, ekainaren 3an, 4an eta 5ean. Horiek ikusi ahal izateko, bertara joatea besterik ez da behar izango. Ordutegiari dagokionez, 19:00etatik 21:00etara egongo da zabalik erakusgela bisitariarentzat. ◀

info+: www.gorliz.eu

Lemoiz

Hondakinei eta 5. edukiontzari buruzko saioak

Hilaren 3an eta 17a, barikuak biak, hondakinei eta bosgarren edukiontzari buruzko hitzaldia eta presentakuntza eskainiko ditu Lemoizko Udalak. Hitzaldi horien helburua da hondakinen kudeaketari buruzko informazioa eta azalpenak ematea, eta herritarrek eduki ditzaketan galderei erantzutea ere bai. Hala, lehenengo saioa hilaren 3an izango da, barikuan, Armintzako kultur etxean, 19:30ean. Hurrengo saioa hilaren 17an izango da, Urizarreko frontoiaren ondoko gelan, 19:30ean. Saio horiek biak hondakinen kudeaketan adituak diren aholkulariak emango dituzte. ◀

Uribe Kosta

Eskualdea Aste Berdean murgilduta dago egunotan

Astelehenean, maiatzaren 30ean, eman zioten hasiera Uribe Kostako Aste Berdeari. Astebeteko egitaraua antolatu du Zerbitzu Mankomunitateak, inguruko udalen laguntzagaz; hala, oraindik ere badago zer egite-rik. Ekimen horren helburua da herritarrek kontzientziatzea, ingurumena errespetatzeak eta jasangarritasuna sustatzeak duten garrantziaz jabetu daitezen. Egunotan bideo-forumak eta hondakin-lantegietara bisitaldia egin ostean, eguenean, hilaren 2an, Eskola Agenda 21eko udal foroa egingo dute Mankomunitatea osatzen duten udalerririk guztietan. Egun horretan ere,

pasta ekologikoa egiteko ikastaroa egingo dute 19:30ean, Urdulizko kultur etxean; aldeztu izena eman behar zen. Azkenik, domekan, hilaren 5ean, joan den abenduan eskualdean jazotako baso-suteak kaltetutako lekuak bisitatuko dituzte. Horretarako, 6 kilometroko mendi-martxa egingo dute, Sopela eta Berango artean. Ibilaldia goizeko 10:00etan hasiko da, Larrabasterrako Urgitxieta plazan. Izena ordu erdi lehenago eman ahal izango da. Helmuga Berangoko frontoia izango da, eta bertan jan-edana egongo da, 11:15etatik 12:30era, antolatzaileek jakinarazi dutenez. ◀

Eskualdeko hainbat ikasleek jaso dute Jakin-mina diploma

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiak diplomak banatu dizkie 2015-2016 ikasturtean Jakin-mina programan parte hartu duten Bizkaiko 20 ikastetxetako ehun bat ikasleri. Ikasleak hemengoak dira: Erandio, Leioa, Sopela, Barakaldo, Bilbo, Igorre, Loiu, Portugalete, Sestao eta Zorrotza. Hego Euskal Herriko ikastetxetako DBH 4. mailako ikasleei dago zuzenduta. Programak bost hitzaldiko zikloa du oinarri; hitzaldi bakoitzean, hitzaldiaren gaien adituak direnek hartzen dute parte. Hala, ikasleek errealitate zientifikoagaz harremanetan egoteko aukera izaten dute. ◀



Bertoko musika-taldeakaz, familia-giroan gozatzeko aukera eman gura du Stereosonik kultur elkarteak. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Banden Jaialdia

Noiz eta non

Ekainak 4, zapatua

11:30-22:00 Fadurako erretegia (Algorta).

Musika-taldeak

- Eszenatoki-nagusia: Rock & Kids, Hey Mr. Neken, Larry Bird, William (Los Brazos), The Old Timey String Band, Matt Horan (Dead Bronco), Jam *Gran Cabo Matxitxako*.

- Eszenatoki akustikoa: Bites!, The Coast, Sinbanda, Peter, eta askoz gehiago.

Bestelakoak

- Getxo udalerriko hainbat saltokik jarritako salmenta-postuak.

- Janaria saltzeko postuak.

Sarrera: 5 euro

- Aurretik, Algortako Riff musika-dendan egongo dira salgai.

- Jaialdiaren egunean, leihatilan salduko dituzte, tokia bete arte, lekua mugatua dauka-eta erretegiak.

info+: www.stereosonik.com

Getxoko banden jaia

Stereosonik kultur elkartearen ekimenez, hainbat musika-talde getxotzar entzuteko aukera egongo da zapatuan, hilak 4, egun osoz, Fadurako erretegi zaharrean.

Zapatu honetan, ekainak 4, Getxoko Banden Jaialdiaren lehenengo edizioa ospatuko dute Algortan; besteak beste, agertokitik agertokira denbora asko daramaten musikari getxotzarrak horrenbeste urte ez daukaten bandetako kideakaz batuko dira Fadurako erretegi zaharrean. Musikaren sorkuntzari dagokionez, Getxon loraldi berri bat datorrela uste du Stereosonik kultur

elkarteak; talde horrek antolatu du Getxoko Banden Jaialdia. Stereosonik elkarteko kideek diotenez, «talde handiak sortu dira udalerrian; Getxo Sound horren lekuko izan zen. Gaur egun, 80 musika-talde baino gehiago dago gurean; horiek denak herritik kanpo jotzen dabilta». Bertoko musika ezagutzera ematea da Stereosonik kultur elkartearen helburu nagusia. Zapatuko jaialdia ez da egiten duten

lehenengo ekitaldia; izan ere, besteak beste, formakuntza-ikastaroak eman dituzte.

Getxoko Banden Jaialdiari dago-kionez, bertoko taldeen musikaz gozatzeko aukera egongo da egun osoan: 11:30etik 22:00etara. Goizean, familia osoarentzako emanaldia eskainiko du Rock & Kids taldeak; rock estiloko kantari ezagunakaz umeak dantzan jarri ohi ditu. Horren ostean, Hey Mr. Neken (Eagles taldearen omenez), Larry Bird, Los Brazos taldeko William Gutierrez, The Old Timey String Band eta Dead Bronco taldeko Matt Horan igoko dira eszenario nagusira. Talde

akustikoentzako agertokian, berriz, Bites! punk-rock bikotea, Sinbanda, The Coast edota Peter egongo dira.

Musika-emanaldiakaz batera, Getxo udalerriko hainbat saltokik ere parte hartuko dute jaialdian; salmenta- eta janari-postuak jarriko dituzte Fadurako erretegi zaharrean.

Sarrerak 5 euroan daude salgai Algortako Villamonte plaza ondoko Riff musika-dendan. Antolatzaileek adierazi dutenez, jaialdiaren egunean bertan, leihatilan ere erosi ahal izango dira, lekua bete arte; pertsona-kopuru zehatz batentzako tokia dago Fadurako erretegi zaharrean. ◀

Jon Urrazaren ikasleen bigarren antzezlan

Sopelako Kurtzio kultur etxean, iaz martxan jarritako helduentzako antzerki-taldeak *Astelehena* obra estreinatuko du bariku honetan, ekainak 3, 20:00etan. Lan hori gazte sopeloztar, berangoztar eta algortar horiek sortutako bigarrena da, eta Jon Urrazak zuzendu du. Momentuz, emanaldi bakarra egongo da Kurtzio; ez da sarrerarik behar. Emanaldia euskaraz izango da. Prekarietatea eta krisialdia dauzka berbabide antzezlanak. Aktoreen sormena bideratuz eta interpretazioa lehenetsiz, entseguetan sortutako antzezlan korala da *Astelehena*, sortzaileek azaldu du-



Nerekan eta Urraza falta dira argazkian.

tenez. Inprobisaziotik abiatzen da. Lizar Begoña, Izaro Gonzalez Ieregi, Nerea Guijarrubia, Mainer Hernandez, Julen Nafarrate, Maitane Nerekan eta Jon Ormaza dira aktoreak. ◀

Ikasturteko azken afari akustikoa egingo du Kalezulo gaztetxeak, Hutsa musika-taldeagaz

Bariku honetan, ekainak 3, ikasturteko azken afari akustikoa egingo dute Erandioko Kalezulo gaztetxean. Ohi den legez, sabelak bete ostean, musikaz gozatzeko aukera edukiko dute bertaratzen direnek; oraingo honetan, Hutsa bikote akustikoak joko du. Maria Rivero balmasedarrak (ahotsa) eta Eriz Perez urduñarrak (gitarra) osatzen dute Hutsa bikotea. 2015eko bukaeran argitaratu zuten *Amnesia* euren laugarren diskoa, *Hutsa* (2011), *Huts Unea* (2012) eta *Astuh* (2013) lanen ostean. Taupaka Elkartearen zigilupean argitaratu dituzte lanak. ◀

info+: kalezulo.blogspot.com

Ekainaren 3ra arte dago Plentziako Mikrofilm Short Fest jaialdian pelikulak aurkezteko

Abuztuaren 13an eta 14an egingo dute Mikrofilm Short Festival jaialdiaren bosgarren edizioa Plentzian. 2011ko uztailaren 7an auto-istripu batean zendu zen Alex Arana Etxebarria zinemasale plentziarraren omenez abiatu zuten ekimena, hura hil eta urtebetera. Genero beltzari eskainitako jaialdi berezia da. Dabarduko lanak aurkezteko epea zabaldu dute antolatzaileek; ekainaren 3a izango da azken eguna. Handik hila-betera emango dituzte lehiaketarako aukeratutako lanen izenak. Irabazleak bi mila euro jasoko ditu. ◀

info+: www.mikrofilmfestival.com

hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2016ko ekainaren 2tik ekainaren 8ra arte

Ekainean ez ezik, irailean eta urrian ere egingo dute Euskeraz Olgetan egitasmoa.



URIBE KOSTA

Euskaraz jolasteko aukera daukate astero txikienek

Ekainean ere Euskeraz Olgetan egitasmoa egiten dabiltza eskualdeko hainbat herritan, Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatuta. Hala, hilaren 2tik 5era (egun bakoitzean, herri batean) bi-deo-jokoan guneagaz eta betiko jolasakaz gozatzeko aukera edukiko dute umeek Plentziako Ontziola (17:30-19:30), Urdulizko Antsonekoa (17:30-

19:30), Gorlizko Ibarreta (12:00-14:00) eta Sospelako Jauregizar (12:00-14:00) plazetan. Ekainaren 6an, berriz, bitxigintza tailerra egingo da Urizarreko eskolan, Lemoizen; 17:00etatik 19:00etara bitartean. Eurria bada, Plentziako udalareko arkupeetan, Urdulizko probalekuan, Gorlizko pilotalekuan eta Lemoizko frontoian egingo dituzte tailerrak. Sopelan ez

dute zehaztu bestelako kokalekurik Mankomunitateko arduradunek.

Euskeraz Olgetan egitasmoa orain dela urte batzuk sortu zen; familiarrean euskararen erabilera eta transmisioa sustatzeko helburua dauka, jolasa oinarri hartuta. Aurten ere, ekintza berezi bat egingo dute hilean behin, helduak umeakaz batera jolas daitezten. ▶



hiruka.eus

2016/06/02 - 19:00

Solasaldia, Oskar Matutegaz

Txiki-Otaegi plaza (San Nikolas) | Getxo
EH Biliduk antolatuta. Getxoitarrek elkarriketatuko dute. Parte-hartzea, libre.

2016/06/02 - 19:30

Plantas medicinales del Pais

Vasco berbaldia

Algortako Kultur Etxea | Getxo

Basozaleak elkarrekin antolatuta. Getxoko XIX. jardunaldi Botamikoan barruan. Gabriel Vazquez Molina belarretan adituagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/06/02 - 19:30

Gaur egungo egoera politikoa iruzko solasaldia

Plaza Gorria | Leioa

Leioako EH Biliduk antolatuta. *Aukerak zabaltzera* goaz goiburupean. Bego Landa eta Iker Casanovagaz. Parte-hartzea, libre.

2016/06/03 - 19:00

Trostan antzezlan

Santa Eugenia plaza (Itzubaltzeta) | Getxo

Kale-antzerkia bultzatuz jardunaldien barruan. Oihulari Clown taldeagaz. Denonizat. Testu barik. Sarrera, doan.

2016/06/03 - 20:00

Astelehena antzezlan

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Jon Urrazak zuzentzen duen inprobisazioaren antzerki-taldeagaz. Euskaraz. Doan.

2016/06/03 - 21:30

Afari akustikoa, Hutsa musika-taldeagaz

Kalezulo gaztetxea (Aitzaga) | Erandio

Informazio gehiago: kalezulo.blogspot.com

2016/06/04 - 11:30-22:00

Getxoko Banden Festibala

Fadurako erretegi zaharra (Algorta) | Getxo

Stereoosonik kultur elkarrekin antolatuta. Familia osoarentzat. Musika-taldeen kontzertuak, eta salmentarako eta janari-postuak egingo dira. Sarrera: 5 euro (Algortako Riff Music dendan eta leihatilan, salgai). Plaza mugatuak.

2016/06/04 - 11:30-14:00

Edestiaurre arkeologia-elkartearen aurkezpena

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Elkartearen aurkezpena, hainbat berbaldi egingo dira. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/06/04 - 20:30

Kanta Getxo Kanta abesbatzen topaketa

San Martin eliza (Algorta) | Getxo

Gasteizko Ahots Argiak, Cabezon de La Saleko Voces Cantabras eta Getxoko Eskuz Esku abesbatzek kantatuko dute. Sarrera, doan.

2016/06/05 - 10:00-15:00

IV. Pottoka Eguna

Goikomendi hipika-kluba | Lemoiz

Erakusketak, umeentzako tailerrak eta pottoka-ibilaldiak egingo dira. Informazio gehiago: facebook.com/proyectopottoka

2016/06/05 - 10:00

Ingurumenaren Eguna

Astondo | Gortiz

Batekik, Gorlizko hondartza eta itsasialbarrak garbituko dituzte. Bestetik, herritarrek oparixoa jasotzeko aukera edukiko dute 11:00etatik 14:00etara, turismo-bulegoan.

2016/06/05 - 11:00

Gozogintza-lehiaketa

Txorierri auzoa | Leioa

Txorierri auzoko jaien barruan. Izena 11:00etan eman behar da, txosnan. Egingadako pastelak 13:30ean aurkeztu behar dira, nagusien etxean. Azkenik, 20:00etan banatuko dituzte sariak.

2016/06/05 - 12:00

Erabakiaren Adierazpenaren aurkezpen publikoa

Bihotz Alai plaza (Algorta) | Getxo

Getxoko Gure Esku Dago taldeak antolatuta. Besteak beste, bertsoak, dantzak eta musika egingo dira. Sarrerak (helduek, 5 euro, eta umeek, 3 euro) Telletzeko lokalean erosi ahal izango dira barikuan, 18:00etatik 20:00etara.

2016/06/05 - 13:00

Eskobien atzetik antzezlan

Santa Eugenia plaza (Itzubaltzeta) | Getxo

Kale antzerkia bultzatuz jardunaldien barruan. Barre taldeagaz. Denonizat. Testu barik. Doan.

2016/06/05 - 12:30

Leioako herri-galdeketaaren aurkezpen publikoa

Boulevard | Leioa

Leioako Gure Esku Dago taldeak antolatuta. *Zabalduta leioa erabakiari* goiburupean. Horrez gainera, Leioako adierazpena aurkeztuko dute. Parte-hartzea, libre.

2016/06/05 - 13:00

Lemoizko herri-galdeketaaren

GORLIZ

Hainbat kirol-jarduera ezagutzera emanez

Zapatu honetan, hilak 4, helduentzako (10:00-11:00) zein umeentzako (12:00-13:00) irristaketa ikastaroak egongo dira ikastetxean. Kiroldegian, berriz, spinning-a egingo dute (12:45-13:30), eta arrastian bizikletan ibili, 17:00etan. ◀

BERANGO

Ardo Eguna egingo dute domekan

Domekan, hilak 5, nagusien etxeko plazan batzen direnek kopa bat erosi (4 euro) beharko dute, Berangoko 18 ekoizleren txakolina dastatu ahal izateko, gura beste gainera, eguerdiko 12:00etatik 15:00etara. ◀

URDULIZ

Ongintza-jaialdia ospatuko dute

Ekainaren 9an, gaixotasun arraroak dauzkaten Aimar del Pozoren eta Alazne Rodriguezen aldeko jaialdia egingo dute 19:30etik aurrera, kultur etxean; sarrerak 5 euroan daude. Hainbat abesbatzak eta taldek kantatuko dute. ◀

2016/06/04 - 13:00

Azken eguzkilorea antzezlan

Santa Eugenia plaza (Itzubaltzeta) | Getxo
Kale antzerkia bultzatuz jardunaldiaren barruan. Patata Tropikala taldeagaz, 3 eta 12 urte artekoentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/06/04 - 18:00

Angry Birds: La película filma Kultur etxea | Urduliz

Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2016/06/04 - 19:00

On egin, mon amour lana

Santa Eugenia plaza (Itzubaltzeta) | Getxo
Kale antzerkia bultzatuz jardunaldiaren barruan. Sallire taldeagaz. Dementizat. Testu barrik. Doan.

aurkezpen publikoa

Armintzako portua | Lemoiz

ADOS Lemoiz taldea aurkeztuko dute.

2016/06/05 - 11:00

Urdulizko herri-galdeketa

aurkezpen publikoa

Antsonetxo plaza | Urduliz
Txangoa (11:00), ekitaldia eta sinadura-batzea (13:00) egingo dituzte.

2016/06/05 - 19:00

La familia toronbole lana

Santa Eugenia plaza (Itzubaltzeta) | Getxo
Kale antzerkia bultzatuz jardunaldiaren barruan. Antzekizuna taldeagaz. Dementizat. Euskaraz eta Italtzeraz. Sarrera, doan.

GORLIZ

Hainbat kirol-jarduera ezagutzera emanez

Zapatu honetan, hilak 4, helduentzako (10:00-11:00) zein umeentzako (12:00-13:00) irristaketa ikastaroak egongo dira ikastetxean. Kiroldegian, berriz, spinning-a egingo dute (12:45-13:30), eta arrastian bizikletan ibili, 17:00etan. ◀

BERANGO

Ardo Eguna egingo dute domekan

Domekan, hilak 5, nagusien etxeko plazan batzen direnek kopa bat erosi (4 euro) beharko dute, Berangoko 18 ekoizleren txakolina dastatu ahal izateko, gura beste gainera, eguerdiko 12:00etatik 15:00etara. ◀

URDULIZ

Ongintza-jaialdia ospatuko dute

Ekainaren 9an, gaixotasun arraroak dauzkaten Aimar del Pozoren eta Alazne Rodriguezen aldeko jaialdia egingo dute 19:30etik aurrera, kultur etxean; sarrerak 5 euroan daude. Hainbat abesbatzak eta taldek kantatuko dute. ◀



Besteak beste, barazkiak, fruta, ezti, gazta, pastelak, txakolina eta sagardoak egongo dira azokan. © ERANDIOKO UDALA

Baserriak kalea hartuko du Erandion

Domeka honetan, XIX. Nekazaritza Azoka egingo dute Altzagan. Hala, gure baserrietako produktuetako batzuk dastatu, eta askoz gehiago erosteko aukera egongo da, Irailaren 23a plazan jarritako salmenta-postuetan. Horrez gainera, umeentzako kirol-jolasak eta herri-kirolak egongo dira. ◀

Noiz: Ekainak 5, domeka.

Ordua: 10:00-15:00

Noiz: Irailaren 23a plaza (udaletxearen aurrean).

Antolatzailea: Erandioko Udala.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoa honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

GETXO

Toponimia-ibilbideaz euskara hutsez goatzeko aukera

Ekainean ere, Bizarra Lepoan euskara-elkarteak Udalagaz antolatutako toponimia-ibilbideez goatzeko aukera egongo da. Domeka honetan, ekainak 5, *Betiko Getxo* izenburuko txangoa egingo dute, baserrietara; goizeko 09:00etan abiatuko dira. Historia, baserriko bizimodua, landareak eta geologia ikasiko dituzte parte-hartzaileek. ◀

izen-ematea: 6 88 635 350 (Jon)



GORLIZ / PLENTZIA

Ekainaren 19an Araba Euskaraz-era joateko autobusa

Ekainaren 19an egingo da Araba Euskaraz, Aguraingo Lautada ikastolak antolatuta. Gorlizko eta Plentziako udalek autobusa antolatuko dute; joan gura dutenek ekainaren 14rara arte izango dute izena emateko aukera, herri bietako kultur etxeetako batean. ◀

info+: euskeraz@uribekostia.org



Andy Hansonen dosia

JON
URRAZA INTXAUSTI
Aktorea

Antzerki tailerraren emanaldia

Ostiralean, ekainak 3an, 20:00etan, Kurtzioko eszenatokian, *Astelehena* antzezlanak ikusteko aukera daukatzue.

Bi urte daramatzat Kurtzioko antzerki tailerra zuzentzen, talde bikaina osatzen dute, aurten ederto integratu diren bi partaide berri izan ditugu gainera eta datoren ikasturterako parte hartzeko interesa agertzen hasi omen da jendea, asko pozten nau horrek.

Elkarrekin sortu dugun antzezlanak, eguneroko bizitzak bezala, komedia eta drama uzartzen ditu. Ohi bezala hutsetik abiatu naiz aktoreekin batera antzezlanak entseguetan sortzen, helburu nagusia parteideek antzeztzen ikasten disfrutatzea delarik eta horren bidez helburu artistiko nagusia gauzatu, hau da, oholtza gainean benetako giza presentziak eta harreman autentikoak agertzea, eta honetarako aktore lanari lehentasuna ematen diogu beste guztia- ren gainetik. Eta benetakotasun hau, Cassavetesen irizpideari jarraituz, oinarritik abiatu behar dela uste dut, hau da, benetako hartu emanak, benetako elkarriketak, benetan entzun, hitz egin eta erreakzionatu. Eta hori guztia ondo pasatzeko asmoarekin, ikusleek eta baita aktoreek ere, «antzezte dibertigarria izan daiteke-eta» (Meisner), eta joko honetan, eskarmentudunek zein hasiberriek ederto barneratu dute bilatzen dudana interpretazioaren estetika.

Animatzen bazarete, baztertu aurreiritziak mesedez, ahaztu antzerki tailerreko emanaldia dela, ez eman bueltarik amateur/profesional izatearen esanahi ekonomiko zein filosofikoei. Etor zaitezte eta besterik gabe goza ezazue ikusiko dituzuen pertsonaia eta egoerekin, ondo pasako duzue eta gainera debalde izango dira biak, funtzioa eta baita ondo pasatzea ere. ◀



Antzezikizuna taldeak euskaraz eta italieraz eskainiko du *La famiglia Toronbole*. © GKE

Antzerki-jaialdia, Getxoko plazetan

Kale-antzerkia bultzatuz ekimenean, sei ikuskizun egongo dira Romoko Santa Eugenia plazan, eta bat, Algortako Zubilleta auzoan; sarrera, doan.

Eusko Jauraritzak sustatutako *Kale antzerkia bultzatuz* ekimenaren barruan, ekimenean hainbat kale-ikuskizun egongo da Getxoko parke eta plazetan; sarrera doan izango da. Hala, ekainaren 3tik 25era sei ikuskizun eskainiko dituzte. Lehenengo hiru egunetan, Itzubaltzeta/Romoko Santa Eugenia plazan egongo da antzerkiaren gozatze-ko aukera: *Trostan* (Oihulari Clown), *Azken eguzkilorea* (Patata Tropikala), *On egin, mon amour* (Salitre), *Psycho clown* (Zo-zongo), *Eskobien atzetik* (Barre) eta *La famiglia toronbole* (Antzezikizuna) antzezlanak egongo dira ikusgai. Azken hori euskaraz eta italieraz eskainiko dute; beste guztiak, berriz, ahots barik edo euskaraz izango dira. Azkenik, ekainaren 25ean, *Skratx* ikuskizuna eskainiko du Ameztu taldeak, Algortako Zubilleta auzoko zelaian; bertoko jaiak dira. ◀

Pelikula bat grabatuko dute Getxon eta getxoztarrakaz

Filmatzen noiz hasiko diren ez dakiten arren, Getxon pelikula egiteko asmoa dauka Elain Aspra algortarrak. Bera da egitasmoaren sustatzailea, gidoilaria eta ekoizlea; zuzendari-lanak Sundance jaialdian saritutako Alex Montoyak egingo ditu. Goya sarietarako ere izendatu zuten. «Aktore nagusiak edo grabazioaren data zehatzak zeintzuk izango diren

ezagutzeko itxaron beharko da», dio Asprak. Aurreratu duenez, bikoteen harremanak jorratuko dituzte, egin gura duten komedian. Horrez gainera, lantalde teknikoa getxoztarrez osatuta egongo da; «estra gehienak ere algortarrak izatea espero dugu», ekoizlearen arabera. Azkenik, talde getxoztarrek egindako kanteak osatuko dute filmaren musika. ◀

Unai Mendiburuk Euskal Herriko Eskolarteko bertsolarien finala jokatuko du, Ereñotzun

Zapatu honetan, ekainak 4, goizeko 11:00etan abiatuko da Hernaniko Ereñotzu auzoan Euskal Herriko Eskolarteko bat-bateko bertso-txapelketaren finala. 15 eta 18 urte bitarteko 12 bertsolarik parte hartuko dute; lurralde bakoitzeko txapelketan txapeldun eta txapeldunorde izandakoak, alegia. Gauzak horrela, Unai Mendiburu Valor gazte algortarra ere egongo da norgehiagokan. Maite Berriozabalak jarriko ditu gaiak, eta aurkeztuko du saioa. Herrialde bakoitzeko, epaile bat egongo da. Txapela Alaia Martinek jarriko dio irabazleari. Sari nagusiari dagokionez, Gabonetako oporraldietan egingo den *Ahots baten* sormen-egonaldira joateko aukera izango dute parte-hartzaileek: bertan antzerki-mundutik, kantagintzatik zein literaturatik datozen euskal gazteakaz elkartuko dira, aterpetxe batean. Eskolarteko txapelduna ezagutu ostean, jaiak jarraipena izango du, bazkariagaz, bertsoakaz eta erromeriagaz. ◀

Egitaraua

Ekainak 3, barikua

19:00 *Trostan* lana (Oihulari Clown), Itzubaltzeta/Romoko Santa Eugenia plazan. Denentzat. Testu barik. Doan.

Ekainak 4, zapatua

13:00 *Azken eguzkilorea* lana (Patata Tropikala), Santa Eugenia. 3 eta 12 urte artekoentzat. Euskaraz. Doan.

19:00 *On egin, mon amour* lana (Salitre), Santa Eugenia. Denentzat. Testu barik. Doan.

22:30 *Psycho clown* lana (Zo-zongo), Santa Eugenia. Denentzat. Testu barik. Doan.

Ekainak 5, domeka

13:00 *Eskobien atzetik* lana (Barre), Santa Eugenia. Denentzat. Testu barik. Doan.

19:00 *La famiglia Toronbole* lana (Antzezikizuna), Santa Eugenia plazan. Denentzat. Euskaraz eta italieraz. Doan.

Ekainak 25, zapatua

13:00 *Skratx* lana (Ameztu), Algortako Zubilleta auzoko zelaian. Denentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.



Maiatzaren 14an inauguratu zuten erakusketa.

Ekainaren 30era arte Mario Silva artista brasildarraren esposizioa ikusgai, Algortan

Mario Silva artista plastikoak *FotoDesconposicion* izeneko egitasmoa ikusgai jarri du Algortako San Nikolas eliza ondoko Jolas Aurre tabernan; ekainaren 30era arte egongo dira bertan bere lanak. Algortan bizi den artistak azaldu duenez, «gaur egungo gizartean, plastikoari ematen diogun gehiegizko erabilera kaltegarria» agerian utzi gura du esposizioan. Besteak beste, argazkiek, margolanek, setazko paperean egindako erliebeek eta erabilitako objektuek osatzen dute *FotoDesconposicion* proiektua. Porto Alegre bere jaioterrian, hainbat lan erakutsi, eta Cochabamba (Bolivia) lanaren zati handi bat egin ostean, erakusketa Algortan inauguratzea erabaki zuen Silvak. Horregaz batera, ekainaren 25ean artistagaz berba egiteko aukera egongo da Jolas Aurren, 19:00etatik aurrera. ◀

«Euskarazko antzezlanak taularatzen jarraitzea guztiz beharrezkoa da»

Olatz Ganboa algortarrak

Alde Zaharreko amoranteak antzezlan estreinatuko du ekainaren 7an eta 8an, Arriagan, Mikel Losadagaz.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Bilboko Arriaga antzokiko agertokira lehendabiziko aldiz igoko da Olatz Ganboa Pilar algortarra; ilusio handia eragiten dio horrek. Ekainaren 7an, *Alde Zaharreko amoranteak* obra antzetzuko du euskaraz, 20:00etan, Mikel Losada aktore ermuarragaz. Hurrengo egunean gaztelaniaz eskainiko dute. Sarrerak 14 euroan daude salgai, ohiko lekuetan.

Zer aurkituko du antzezlan ikustera doan jendeak?

Alde batetik, aipatu behar da obra tragikomikoa dela, eta nahiko arina. Bestalde, pertsonaia ezberdinak egiten ditugu; antzezlan bat izan arren, jolas bat izango balitz bezala hartzen dugu guk. Pertsonaia batetik bestera salto egiten dugu etengabe. Ez da mezu edo irakasgai bat transmititu gura duen antzezlan horietako bat; ikusleek ondo pasatzea da asmoa.

Zer kontatzen du antzezlanak?

Romeo eta Julieta obrarekin paralelismo bat egiten saiatzen da Patxo Telleria; berak idatzi du antzezlan. Hala ere, *Alde Zaharreko amoranteak* obrak ez du pertsonaia bi horien istorioa kontatzen; William Shakespeareren pertsonaia ezberdinak interpretatzen ditugu. Eszenario gainean, obra bat antzetzuko gura dugun bikotea gara Mikel Losada eta biok; gure artean ze-



Algortarra izan arren, Bilboko Zazpi Kaleetan bizi da Olatz Ganboa Pilar aktorea.

loak, lehiakortasuna eta liskarrak sortuko dira. Korapilo-komedia batez ari gara; ez dauka ildo bakar bat, gauza asko gertatzen dira.

Zergatik jarri zenioten *Alde Zaharreko amoranteak* izenburua?

Bilboko Zazpi Kaleetan bizi gara Mikel Losada eta biok.

Lehenengo egunean euskaraz, eta bigarreanean gaztelaniaz aurkeztuko duzue.

Bai. Euskaraz ere antzerkia egitea beharrezkoa da. Ikusle gutxiago egoten da, baina Mikel Losada eta biok euskaldunak gara.

Nondik datorkizu antzerkirako grina?

Kazetaritzako hirugarren mailan nengoela, 21 urterekin, Getxoko Antzerki Eskolak ematen zuen ikastaro batean

izena eman nuen. Ez neukan buruan ogibidetza hartzea, baina irakasleetako batek nahikotxo animatu ninduen. Orduetik hona, zorte handia izan dut: Argentinan urtebete egin nuen ikasten;

“Dударик gabe, antzerkia nahiago dut; zineman, ikasteko asko daukat oraindik”

bueltan ez zait inoiz lanik falta izan, antzerkigintza-munduan.

Umeentzako antzerkia ere egin duzu.

Glu Glu konpainiarekin *Txanogorritxu* egiten ibili naiz. Ezberdina da helduentzat edo umeentzat antzerkia egitea. Helduak kritikagoak dira; txi-

kiak, ordea, adi-adi eta oso geldi egongo dira, antzezlan gustatzen bazaie. Gustuko ez badute, saio guztia emango dute hitz egiten.

Eta zinema eta telebistan, zer?

Telebistan ezer gutxi egin dut; *Kerman mintzalagun bila* saioaren kapitulu bat besterik ez. Zineman, berriz, *Tres mentiras* filma egin nuen orain dela urte bi. Oso ezberdina da. Antzerkia nahiago dut; agian, zineman, ikasteko asko daukadalako oraindik.

Gaur ez bada bihar, etxean antzetztea gustatuko litzazuke?

Getxo Antzoki berria ez dute zabaldu oraindik; bertoko eszenarioan antzetztea gustatuko litzaidake. Etxean senide eta lagunek babestuta sentitzen zara, agertoki gainean. Gogo handiak ditut Algortan antzetzeko. ◀

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota: 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota: 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

Bazkide Erabiltsailea

Bazkide Laguntzailea

Hiruka laguna

Urtean 35€ Urtean _____ €

Izena NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea Telefonoa

E-posta

Kontu korrante zenbakia

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak libxategi automatikoki bazein sartuko dira, erabiltzaileekin harremanetan jaritzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikazioa helarazteko. HIRUKAren datuak erabiltzeko zuzeneko informazioa ematen jarraitu behar du. Erabiltzaileak bere datuak erabiltzeko zuzeneko informazioa ematen jarraitu behar du. Erabiltzaileak bere datuak erabiltzeko zuzeneko informazioa ematen jarraitu behar du. Erabiltzaileak bere datuak erabiltzeko zuzeneko informazioa ematen jarraitu behar du. Erabiltzaileak bere datuak erabiltzeko zuzeneko informazioa ematen jarraitu behar du.

«Autozentsuran ez erortzea da emakumeon erronka»

Amal Ramsis zinema-zuzendari egiptoarra Algortan izan da pasa den astean, Getxoko Jabekuntza Eskolan tailer bat ematen; Bilbon izango da barikura arte, emakumezkoek egindako zinema arabiarraren karabanagaz. Ramsisek 43 urte ditu, eta Emakumeen Nazioarteko Kairoko Zinema Festibalaren zuzendaria da. Hurbiletik bizi ditu Egiptoko Gobernuaren zentsura eta errepresioa, eta baldintza horietan zinema egitearen garrantzia defendatzen du: «gure eginbeharra da».



IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Zertan ibili zara egunotan Algortan?

Ibili baino, korrikan, leku batetik bestera! «Mujeres en correspondencia» (Emakumeak elkarrekotasunean) tailerra ematen ibili naiz. Minutu bateko bideoak egiteko tailerra da; ikus-entzunezko profesionalak ez diren emakumeak egiten dugu lan, filmazioaz oinarritzkoa eta euren ideiak film laburretan adierazten irakasteko. Tailerrean, bakoitzak bere bideoa egin du, minutu batekoa eta sekuentzia-plano batean. Lau egun izan dira. Getxon egindako film labur denak proiektatu genituen astelehenean Bilbon; horiekaz batera eman genituen Kairon, Alexandrian eta Egiptoko beste hiri batzuetan, zein Mexikon eta El Salvadorren sortutako lanen hautapen bat.

Zelakoa izan da Getxoko emakumeak lan egitea?

Oso ona! Ez da hemen lan egiten dudana lehenengo aldia, Euskal Herrian. Iaz Ermuan izan nintzen, beste tailer batean, eta aurreko urteetan, Donostian eta Bilbon jardun dut; beti ondo. Tailerrak ez ditugu hemen bakarrik egiten. Emakumezkoek egindako zinema arabiarraren karabanagaz gatoz; Emakumeen Nazioarteko Kairoko Zinema Festibalaren hautapena da. Barikura arte, emakume zuzendari arabiarraren filmak proiektatzen gabiltza Bilboko Alondegian, zuzendarietako batzuk bertan direla, publikoagaz eztabaidak egiten. Emakume zinemagileen topaketak izan ditugu, KCD gobernuz kanpoko erakundeak eta EHUk antolatuta. Goizean topaketakaz, eta arrastian karabanagaz ibili gara eguaztenera arte.

Zelangoa da Getxoko emakumeen maila?

Kontua da lan egitea aurretik ezertxo ere egin ez duten emakumeakaz. Halandaze, emakumeak ahalegintzen gara elkarregaz komunikatzen, generoaren gaiaz eztabaidatzeko, ideia bateratuak garatzeko, elkarlan-mekanismoak sortzeko... hori da garrantzitsua tailerrean. Helburua ez da emakume batek

“**Sistema ekonomiko eta juridikoak berdin segitzen du, eta emakumearen egoera ez da aldatuko, sistema irauli arte**”

filmak egiten ikastea, lau egunean ez baita sortzen zinema-zuzendari bat. Ideia da talde-lanerako baliabideak eratzea. Nire ustez, nahiko ondo funtzionatu du hemen. Ideiei dagokienez ere, ideia asko partekatzen dute hemengo andreak eta munduko beste leku batzuetako emakumeek: Egiptokoak, Oaxakoak, El Salvadorrekoak... Hori askori arraroa iruditu ahal zaie, baina kontu asko dago komunean; ez ditugu atzematen emakumeok ditugun gure arteko kontu komun horiek, batera film laburrak egin edo lan egiten dugunera arte. Astelehenean, hemengo film laburrak proiektatu genituen beste lanakaz, eta

orduan, hemengo emakumeak jabetu ziren hemen egin duten hainbat kontu munduko beste leku batzuetan ere egin dutela, eta horrek batzen gaituela.

Ikasketaz eta lanbidez abokatua zara. Gerora zinemari jardun duzu. Ez da ohiko konbinazioa.

Nire kasuan, tipikoa izan daiteke, kar, kar, kar. Zuzenbidea ikasi nuen, eta abokatu ibili nintzen lanean. Gerora hasi nintzen zinema ikasten, orain dela urte asko, eta orain honetan nabil lanean. Nire ustez, abokatuaren lana egiteak edo zuzenbidea ikasteak bazeukan jendarteagaz eta gure munduak pairatzen dituen arazoakaz komunikatuta egoteko zentzua. Baina zelanbait ikusi nuen zuzenbideko lanak ez duela balio arazo horiek konpontzeko, mundu arabiarran beharra nahiko burokratikoak baita. Konturatu nintzen lan zinematografikoagaz hobeto adieraz nezakeela buruan zer nuen, eta, era berean, dokumentaletan hobeto adieraz nezakeela Egipton zer gertatzen den.

Zelangoa da Egiptoko egoera politikoa gaur egun?

Nahiko zaila da; ez dakit jendeak noraino ezagutzen duen Egipton zer gertatzen den. 2011n iraultza deritzoguna izan zen. Pentsatu genuen iraultzak hilabete batzuk iraungo zuela, baina gerora konturatu ginen urteak beharko dituela. Orduan, jendea hasi zen Mubaraken Gobernuaren aurka mugitzen. 18 egunen ondoren, Mubaraken Gobernuaren erori zen, eta Armadak hartu zuen boterea, herriaren eskubideak defen-



datuko zuelako aitzakia erabiliz. Hilabete batzuk ge-roago konturatu zen jendea sistema bera zela, ez zela aldatu. Hauteskundeak izan ziren ostean, eta Anaia Musulmanek irabazi zituzten. Urtebete beranduago, herriak ikusi zuen hori ere sistema bera zela, baina diskurtso erlijiosoagaz; ez zegoela desberdintasunik Gobernu horren eta aurrekoaren artean. 2013ko ekainaren 30ean, Anaia Musulmanen aurkako matxinada izan zen, eta Armada bueltatu zen agintera. Orduan, jendeak Armadaren alde egin zuen, Anaia Musulmanak okerrenen artean okerrenak zirela iritzita, eta egia zen. Harrezkero, Al-Sisiren Gobernu dago. Argi dago Gobernuak aliantza garrantzitsua duela Israel-egaz eta AEBakaz, eta jendeak argi ikusi du ez dituela errazten iraultzaren oinarrizko eskaerak: justizia soziala, adierazpen-askatasuna, eta abar. Azken hilotan, mobilizazioa kaleetara bueltatu da berriro ere: gazte asko atxilotuta dago; kartzelak beteta daude, eta sindikatuak nahiko mobilizatuta daude. Azken hori ona da. Arazoa da Egipton ez dugula mugimendu politiko antolatuta bat, boterea hartzeko. Mugitzen gara militarrengandik Anaia Musulmanengana, ezkerre gaixorik dagoelako: beti bata bestearen aurka borrokan daude ea liderra zein izango den. Zoritxarrez hori da arazoa, ea nork hartuko duen agintea. Batasunaren beharra dago mugimendu politikoan. Datozen hilotan, hori atzean uztea espero dut; bestela horrela segituko dugu, batzuen eta besteen artean gobernua txandakatzen, alderdi militarra edo erlijioso lehenetsita, baina sistema berean.

Egoera horretan, Egipton zinema egitea erraza da?

Kontua ez da erraza ala zaila izatea. Egin, egin behar dugu. Ez dugu gehiegi pentsatzen; konektatuta gaudere herriagaz; gure eginbeharra da. Gure kezka da zelan aurkitu zinema egiteko modua. Une bakoitzean, kontuak egiteko era ezberdin bat topatu behar dugu, unean-unean funtzionatuko duten mekanismoak erabilita, gobernu bakoitzak, nahiz eta interes berberak izan, aldatu egiten dituelako errepresioa egiteko moduak. Une bakoitzean, erresistentzia-mota ezberdinak sortzea da kontua. Kontua ez da erraza ala zaila den, ez gaudelako dena erraza izango den jendarte libre batean. Desiratzen dut garai hori heltzen denean ni oraindino bizirik egotea, baina ez dut uste, kar, kar, kar! Filmatzeaz gainera, lanak proiektatzeko moduak ere topatu behar ditugu, lan zinematografikoa egitea ez delako nahikoa, jendearengana heldu behar du egindako lan horrek. Fase horretan ere, lan egin behar dugu beste talde eta gizarte mugimenduakaz eta jendeagaz batera, jarraikotasuna izateko, sistemak onartu ez arren.

Arlo horretan, arazoak izan dituzue Emakumeen Nazioarteko Kairoko Zinema Festibalean?

Ez dakit esatea beharrezkoa den, baina gure festibala ez da legala. Hala ere, Gobernu bera ere ez da horretaz jabetu, kar, kar, kar. Gura ditugun proiektioak egin ahal izateko trikimailuak uneoro baliatu behar ditugu. Nogaz, non eta zein testuingururen arabera, aldatu egiten dira arauak. Ahalegindu gara eta 10

urteotan kontatu gura izan duguna kontatu dugu, gure aldetik ez baitugu inolako zentsurarik ezarri. Beste batzuek zentsuratzen dute gure lana, eta hori badakigu; arriskutsuena izango litzateke guk autozentsura egitea. Emakumeon erronka ez da sistemaren zentsura, baizik eta autozentsura horretan ez erortzea. Espero dezagun aurrera segitzea, ez baitakigu etorkizunean zer gerta daitekeen. Jendetza dator festibala ikustera: aurten, 5.000 edo 6.000 ikusle izan gara, emakumeak zein gizonak. Ez da Espainian legez; han, bakarrik emakumeenak dira festibal batzuk. Gurean ia erdia eta erdia dira gizonak eta emakumeak, eta, batzuetan, saioak beranduago direnean, gizon gehiago izaten dira emakumeak baino. Eztabaida oso aberasgarriak izaten ditugu publikoko emakumeen eta gizonen artean, eta datozen emakume zuzendariakaz. Adin aldetik ere, denetarik dago. Gainera, doakoa da gure festibala, eta alde horretatik bakarra da Egipton, eta horrela izaten segitzea aldarrikatzen dugu. Era berean, film denak arabierako azpitituluakaz egotea exijitzen dugu, eta horretan ere, bakarrak gara. Beste festibal denek ingelesezko azpitituluakaz izaten dituzte, eta ingeleza dakien publiko intelektualarengana zuzenduta, beraz. Guk gure lana horrelako filmak ikusi behar duen publikoarengana zuzentzen ditugu. Horregatik urte gutxitan, festibal herrikoia bihurtu gara; ekimen berezia gara Kairon, emakumeentzat eta publiko zabal batentzat.

2011ko iraultzatik gaur arte, emakumearen egoera eta rola aldatu dira?

Ez da aldatu. Esaten dute emakumeak 2011n irten zirela kalera, baina hori ez da egia, emakumeak beti izan direlako kalean. Gezurra da. Kamerak bertan zeudelako esaten dute, baina gu beti egon gara kalean, aldarrikatzen. Emakumeek zineman duten presentzia berba egiten badugu, adibidez, Egipto da herrialde bakarrenetarikoa non emakumeak betidanik dauden industrian, ekoizle, zuzendari edo editoreen lanetan. 1920ko hamarkadan, emakume batek sortu zuen Egiptoko lehenengo ekoiztetxe zinematografikoa. Emakumeen rola ez da eztabaidatzen. Dagoena da mundu arabiarraz dagoen estereotipoa; gurean emakumeak ez dauka legetan, kalean daukan beste berme eta eskubide. Horrega-

“Desiratzen dut dena erraza izango den jendarte libre hiltzeko ni oraindino bizirik egotea, baina ez dut uste”

tik, 2011n, emakumeak kalean izatea guretzat ez zen arraroa izan, baina munduarentzat bai, lehenengoz ikusi zuelako hori. Legeek ere gure eskubideak onartzen dituzten borroka egiten gabilta. Zure galderari erantzuteko, 2011tik zer aldatu den? Herrialdean ezertxo ere ez bada aldatu, ezin dugu espero zerbait aldatzea emakumearen edo generoaren kontuetan, erabat lotuta dagoelako hori sistema osoari. Egipton jendea aldatu da, baina sistema ez. Gu ez gara lehen gineak, baina sistema ekonomiko eta juridikoak berdin segitzen du. Eta emakumearen egoera ez da aldatuko, harik eta sistema osoa irauli arte. ◀



Urtean zehar ere pottoka gainean ibil daiteke. © GOIKOMENDI ZALDI-KLUBA

Pottoka Eguna, domekan

Andrakako Goikomendi zaldi-klubak Pottoka Eguna antolatuko du domeka honetan. Azken urteotan legez, bertoko aberea ezagutaraziko die zaldi-zaleei.

Domeka honetan, ekainak 5, Pottoka Egunaren laugarren edizioa hartuko du Lemoizko Goikomendi zaldi-klubak, Andrakako gainean.

Ohi legez, hipika-taldeak berak antolatu du ekimena, Euskal eta Bizkaiko Hipika Federazioek, Lemoizko Udalak, Bizkaiko Pottoka hazleen elkarteak eta Bilboko Disc Dog klubak

emandako laguntzagaz, azken hiru urteotako arrakastak bultzatuta.

Azoka eta erakusketa

Pottoka arrazako zaldien azoka eta erakusketa goizeko 10:00etan abiatuko dute. Handik aurrera, hainbat jarduera izango dira neska-mutilentzat, helduentzat zein familia osoarentzat. Hala, aukera izango da pottoka arra-

zako zaldiari buruzko erakusketa didaktikoa ikusi, umeentzako eskulan tailerretan parte hartu edo puzgarrietan jolasteko. Era berean, gura dutenek kortak ikusi, bertako tresnen erakusketa aztertu, eta paseoa eman ahal izango dute pottokakaz.

Pottoka Proiektua

Nagusiek pottoken erakustaldia izango dute aukeran, eta bertan zaldiak saltzen ahaleginduko dira hazleak. Pottoka Proiektua zertan datzan azalduko dute, zaldi horientzako babes etxeak sortzea, alegia. Azkenik, Bil-

boko Disc Dog klubak disc-dog erakustaldia egingo du. Gainera, ohiko heziera erakutsiko dute zaldi-taldeko emakumeek. Ondoren, heziera naturalaren adibideak jarriko dituzte. Horren ostean, zaldiberri edo poni lehiaketa izango da; sari-emanaldiak emango dio amaiera egunari.

Pottoka eguna ez da Goikomendik arraza hori ezagutarazteko egiten duen ekimen bakarra. Lehen Hezkuntzako ikastetxei «hezkuntza-espe-rientzia» eskaintzen die. ◀

info+: Goikomendi.blogspot.com
/ Proyectopottoka.blogspot.com

Lointek oztopo guztiak gainditzeko kapaza da

Lointek txirrindularitza-taldeak irabaz zezakeen dena eraman du Valentziako Voltan. Alba Teruel taldeko valentziarrak irabazi ditu sailkapen nagusia, lehenengo etapa, eta erregulartasunaren, mendiaren eta valentziar onenaren maillotak. Alicia Gonzalezek tarteko helmugan burua izatea lortu du; Aurore Verhoevenek bigarren eta azken etapan jaso ditu besoak; eta taldekako sailkapenaren buru izan da Lointek. Dena lortu dute, azken etapan Terueli gurgila zulatu zitzaion arren. Estutasun gehiago ere izan ditu talde sopoloztarrak azken aldian. Aurereko astean, Espainiako Koparen bos-



Txirrindulariak Murtzian. © LOINTEK

garren proban, Murtzian, podium osoa hartu zuten Lointekekoek. Harako bidean, baina, taldearen autoa erre zitzaion, eta kostata heldu ziren probara. Bueltakoa beste odisea bat izan zen: furgonetari gurgila zulatu zitzaion. ◀

Txirrindulariak Gorkizera doaz zapatu honetan

Gorkizko txirrindularitza-eskolen bigarren proba egingo dute zapatu honetan, ekainak 4, Gorkizen bertan. Udalak jakinarazi duenez, oraingo proba lasterketa-modalitatean izango da. 17:00etan hasiko da Itsasbide kalean lasterketa, eta handik hiru bat ordura, leku berean amaituko da. Parte-hartzaileek 2 eta 10 kilometro arteko distantziak egin beharko dituzte, kategoriaren arabera. Hala, 7 eta 8 urteko umeek distantzia laburrena egingo dute; hasiberriek, 3.000 metro; 1. urteko kimuek, 4.000; 2. urteko kimuek, 4.500; 1. urteko hurrek, 8.000; eta 2. urteko hurrek, 10 kilometro. ◀

Getxo Indarbike MTB Euskadiko saria, domekan

Domekan, ekainak 5, Getxo Indarbike txirrindularitza-proba egingo dute, MTB Euskadiko sariaren barruan. Lasterketa Algortako Fadura kiroldegiko belodromoan eta ondoko Iturri mendateko larreetan jokatuko da, goizeko 11:00etatik aurrera. Txirrindulariek lau, bost edo sei bira eman beharko dizkiote 4.600 metroko zirkuituari. Ibilbidean hainbat aldaketa egin du antolakuntzak, Faturako gune lauak kendu eta tarte gogorrago gehiago ipintzeko. Proba Bizkaiko txapelketa ere izango da. Izena daborduko eman daiteke Internetez; domekan ere izango da aukera: 09:30ean. ◀

Getxon, udako hamaika campus



Surfa da udako campusetan eskainitako kiroletako bat. © GETXOKO UDALA

Getxoko zenbait kirol-klubek, Getxo Kirolak udal erakundeagaz elkarlanean, 20 kirol-campus zabalduko dituzte udako hilabeteetarako; «orain arte eskainitako campus-kopuru handiena da», udal agintariak ohartarazi dutenez. Campusak honako modalitate hauetan eskainiko dituzte: gimnastika erritmiko, errugbi, esku-baloia, saskibaloia, igeriketa, tenis, futbol, atezainen prestaketa, irristaketa, skate, surf (banaka edo taldeka), bela, boleibol, xake, hockey, atletismo eta Jiu-jitsu, askotariko kirola eta defentsa pertsonala. Raspasen Arraun Eskolak ere udako ikastaroak eskainiko ditu arraunean ikasteko, 10 eta 16 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta. Ikastaroak uztailaren 18tik abuztuaren 27ra egingo dituzte Areetako ontzirekuan. Bi asteak izango dira, astelehenetik barikura, goizeko ordu-tegian, 11:00etatik 13:00etara. Prezioa 50 eurokoa da. ◀

Gimnasia eta irristaketa

685 545 032 / 664 570 994 / 946 085 933

Saskibaloia

657 773 523 / getxosaski@gmail.com

Igeriketa eta askotariko kirola

663 871 318 / getxoibke@gmail.com

Tenisa eta askotariko kirola

685 751 688 / 609 400 742

Futbola eta askotariko kirola

688886616, 615705253, 676471175, 615982663

Boleibola

654 738 779 / campusvoleigetxo@gmail.com

Surfa, skate eta hockey

675 650 713 / 649 932 284 / 627 036 911

Bela eta arrauna

944 916 632 / 662 335 978

Errugbia eta askotariko kirola

688 874 714 / getxorugby@getxorugby.com

Jiu-jitsua / defentsa pertsonala

648 629 265 / ridersfightclub@gmail.com

Xakea

688 677 874 / info@damagaztea.com

Atletismoa

688 677 874 / info@damagaztea.com

Leioak Bigarren B mailan segituko du

Leioa Kirol Elkarteak hirugarren denboraldia jokatu du 2. B Mailan, datorren urtean. Leioaztarrek gol-festa egin zuten Sarriengan, Xativako Olympic taldeari 4-1 irabazita; Yanis Rahmanik gol bi sartu zituen, eta bana, Jon Etxanizek eta Gabri Gomezek. Igor Gordobilen mutilek erraz jokatu zuten jaitsiera-kanporaketaren bueltako partida, joanekoan 1-1 berdindu ostean. Partidaren ondoren, Leioako futbolariak eskertu egin zuten zaleek denboraldian eta jaitsiera kanporaketan agertu duten babesa. Datorren denboraldian ere, Arenasen aurkako derbiak izango dira Sarriengan eta Gobelan. ◀

Culturalak ez du Isaac Aketxe berrituko

Isaac Aketxeren kontratua berritzea baztertu dula jakinarazi du Felipe Llamazares Leongo Cultural futbol-klubeko kudeatzaileak. Llamazaresen arabera, 2. B Mailako klubak hiru denboraldiko kontratua eskaini zion aurrelari itzubaltzetarrari urtarrian, baina Aketxek ez zien erantzun. Denboraldia bukatu aurretik beste proposamen bat egin ziotela azaldu du leondarrak. Bigarren eskaintza horrek «iraungipendata» ei zeukan: «epea amaitu zen, beste astebete eman genion, eta erantzunik jaso ez genuenez, eskaintza bertan behera utzi genuen». Andaluziara joan liteke Isaac Aketxe. ◀



Goikoa zaleen talde zuri-gorria daborduko ofiziala da, Athleticek horren berri ematen duen plaka eman ostean. Aitorpena handitasunez ospatu zuten, pasa den barikuan Ander Herreraren omenezko lagunartekoaren egoitzan, Algortako Alango auzoko Goikoa tabernan.

Zu eta biok, **hirukan**, bultzada bera!



Gure lana, Zure ekarpenak,
Denon babesa eta parte-hartzea,
Bultzada ekonomikoa ere bai!

Urtean
35€
baino ez

hiruka.eus/harpidetza/laguna/
944 911 337
hirukakoop@hiruka.eus

hiruka zaituz!



Trukean: zozketak, sariak,
astekarla eguazteno...

Barrikako udako campusa, prest



Begirale denak dagokien tituluaren jabe dira. © ABAROA

Barrikako Udalak eta Abaroa tenis-taldeak daborduko zabaldu dute udalekuaren 7. ediziorako izen-ematea. 6 eta 14 urte bitarteko neska-mutilei dago zuzenduta, barrikoztarrak izan ez arren. Ekainaren 27tik abuztuaren 12ra egingo dute campusa, astegun goizetan, aste solte batean eta hiru hamabostalditan banatuta.

Era berean, Abaroak tenis eta paddleko ikastaro trinkoak antolatu ditu uztaileko. Tenis-saioak campusa-gaz osagarriak izango dira, arrastian izango baitira, astelehenetik eguaztenera, ordu bateko lehia-saiotan. Bertan umeez, gazteek zein helduek parte hartzeko aukera izango dute, mailakaturako talde txikietan. Lehiaketa-saio bereziak ere izango dira, estreinako aldiz, 90 minutukoak. Padel-ikastaroak, ostera, goiz zein arrastiz egingo dituzte, 16 urtetik gorakoentzat.

Campusaren hiru ardatzak tenisa, mota askotako kirola eta ingelesa

izango dira, eta elkarbizitzagaz batuko dituzte. Jagoleakaz batu eta ekimenetara abiatzeko, umeez eta gazte-txoek Barrikako udaletxearen aurrean egon beharko dute, egunero goizeko 09:30ean, eta gurasoak haien bila joan ahalko dira 14:00etan. Bitartean, neska-mutilak talde txikietan txandakaturako dira, kirol mota bi eta ingelesa praktikatzeko. Halere, izango dituzte elkarregaz egoteko tarteak: goizeko 11:30eko hamaiketakoan, berbarako. Interesdunek 185 euro ordaindu beharko dituzte, Laboral Kutxan, hamabostaldi batengatik; edo 345 euro, hamabostaldi birengatik; hasierako astea 105 euroan utzi dute. Abaroaren webgunetik inskripzio-fitxa jaitsi eta bete ostean, elkartearen posta elektronikora bidal daiteke, ordain-agiriagaz batera. Era berean, badago eskuz ematerik. Antolatzaileek iragarri dutenez, txanda bakoitzean zortzi umeko lau talde egingo dituzte. ◀

info+: barrikatenistaldea@gmail.com / 655 709 693

Jon Rahm, bigarrenenez Ben Hogan-en irabazle

Jon Rahm golf-jokalari barrikoztarrak Ben Hogan saria eskuratu du bigarren urtez segidan. Rahmek pare bat urte daramatza AEBetan, eta Arizonako Unibertsitatean ere ikasten dabil. Horri esker, aurtengoa bigarren aldiz irabazi du Ben Hogan saria; aurretik inork ez du irabazi birritan AEBetako gol-jokalari amateurentzako saririk nagusia. Arabako Larrabea golf-klubeko kidea da barrikoztarra, baina Arizonako estatu-unibertsitateagaz lehiatzen dabil azken urte bietan. Bertan egindako markak hurbiletik segitu ditu AEBetako entrenatzaileen elkarrekin. Aurtengoa saria eskuratzeko



© BEN HOGAN AWARD

azken fasean, Rahm honako finalistei nagusitu zaizkie: Maverick McNealy, Stanford Unibertsitatekoa, eta Beau Hossler, Texaskoa. Barrikako semea lehena da golf-jokalari amateurren artean, eta hirugarrena, berriz, Goflstat rankingean. ◀

Elkartasun-igerialdia egingo dute Algortan

AEA, Alboko Esklerosi Amiotrofikoa gaitzak kaltetutako gaixoen aldeko elkartasun-igerialdia hartuko du Algortako Kirol Portuak datorren ekainaren 12an, domeka. Ekimena 13:00etan hasiko da; bertan, helduek kilometro bateko distantzia bete beharko dute; eta 14 urte arteko gazteentzako, 350 metro. Izen-ematea daborduko zabalik dago, eta ekainaren 11ra arte egin daiteke. Parte-hartzaile heldu bakoitzak 15 euroko dohaintza egingo dio Siempre Adelante elkarteari, gaitza iker-tu, gaixoen bizi-baldintzak hobetu eta arazoa ikusgarri egin dezan. ◀

izen-ematea: Sailkapenak.com

Parkea egingo dute Fadurako kiroldegian

Getxo Kirolak Getxoko Udaleko kirol-erakundea Fadura kiroldegia-kanpoaldean sarbide libreko parke publiko bat diseinatzen hasiko da laister. Udal iturriek iragarri dutenez, planteamendu berri horren arabera, kirol-instalazioak Getxo Kirolak erakundeko «erabiltzaileentzat bakarrik izango dira, baina gainerako berdegune eta aisia-guneak udalerriko parke publikoaren sareari gehituko zaizkio». Halandaze, Fadura kiroldegiko kanpoaldearen erabilera aldatuko da, «Gobela ibaia bideratzeko obrek kiroldegi inguruan izan duten eraginagatik», Kirol Arloak zabaldu duenez. ◀

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41
Algorta

Abenduko suteek egin zituzten kalteak ikusgai

Domekarako, ekainak 5, mendimartxa berezia antolatu dute Munarrikolanda mendi-taldeak eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak. Antolatzaileek adierazi dutenez, pasa den abenduan Berango eta Sopelan suteak zer eragin zuen ikusteko txangoa izango da domekako. Mendizaleak 10:00etan aterako

dira Larrabasterrako Urgitxieta plaza-tik. Handik, Munarrikolanda mendira joango dira, tartean erre ez zen ikurri-na, kiskalitako basoa eta Burdin-gerrikoa ikusteko. Buelta Berangoko hilerrietik egingo dute, eta herri horretako frontoian amaitu. Txangoak sei kilometroko ibilbidea dauka. ◀

info+: Uribekosta.eu

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



Medested saio bat, aurpegi-tratamendua

Urdulizko Kumara zentroaren ekimenez, azala tinkatzeko eta finkatzeko, zahartzearen ondorioei aurre egiteko...

Ekainaren 9a baino lehen, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37

5€



CHLOE
SOPELA
Aita-ama, Jack, Bianca eta Chester

Zorionak, Chloe! 14 urte jada, goza itzazu!!!! Pilo pilo bat maite zaitugu, eraman gaitzazu zurekin zer edo zer hartzera. Musu handi bat!!!!



ALVARITO
GETXO
Telefonoaren bestaldekoen partez

Alvaritoooooo, zorionakkkkk!!!! ibiltzen ibiltzen ari naiz... benga zure herriko bideetara!!! Zure zain gaitugu, kuis!! Atera itzazu kaña batzuk eta goazen ospatzera! Musu potoloaaa!



JUGAITZ
BITARTEAN
Lagunen partez

Zorionak, Juga! Urte beste mosu!! Irribarre eder horregaz beti bezain gazte! Bide batez, ondo etorri Uribe Kostara! Badaukagu zer ospatu, ezta?!

Sudokua

5			3			1	6	7
			7		5	9	2	
			4			8		
1								
3	7		1			6		5
		4				3		
		9		3	6			
	8		9	1				
					2			

Gogoan hartu 1etik gra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

1	6	5	2	7	8	3	9	4
9	3	7	4	1	6	5	8	7
8		4	7	6	3	5	9	2
2	1	3	7	5	9	4	6	8
5	4	6	8	1	9	2	7	3
9	8	7	3	4	2	6	5	1
3	5	8	1	9	4	7	2	6
2	4	6	5	8	7	1	3	9
7	1	6	2	9	3	8	4	5

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Eguzkia ateraz gero eta krema aldatzen ez baduzu, erre egingo zara, eta iaz legez, karramarro egosi baten modura ibiliko zara: gorri-gorri.




Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Osasunari dagokionez, hobe zenuke dituzun zatlantzak medikuagaz argitzea. Bestalde, lagunagaz denbora gehiago ematea ondo etorriko litzaizuke.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Daborduko konturatu zara: telebistan ematen dituzten serie gehienak txorakeriak besterik ez dira! Urteak baino ez zaizu kostatu. Zorionak!



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Txapela hartzeko zaude aspaldidanik, baina utzi eta utzi ibili zarenez, eroste atzeratu duzu, behin eta berriro. Bada garaia eskuratzeko.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Estresa eta gogaitzea itsasoan bainua hartuz senda daitezke. Arnasa sakon hartu, eta olatuen azpian murgil zaitetz.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ileak kenduko dituzun ala ez erabaki beharko duzu. Daborduko sastraka ilun nabarmena metatu duzu, eta denon iritziak entzuteaz aspertuko zara.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Txokolatea janda, bizitza beste kolore batez ikusten da. Kritikatzeko bazaitzute hutsik edo ogitar-tekoan jaten duzulako, antzarak ferratzera bidali.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Planetak ilaran paratu dira, eta emaitza ez da ona zuretzat: estropezu egiteko arriskua inoiz baino handiagoa izango duzu.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Planeta nanoa bada ere, Plutonek zure bizitzan garrantzi handia izatea aldarrikatzen du! Praka zabalagoak behar dituzula esan dio Metari.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Atzerrirako txangoan irteteko sasoz zabitza oraindino. Gainera, giro berriak mesede egingo dizu; indar berriagaz etorriko zara.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Pipan erreko bazenu moduan gorritzen zaizu aurpegia, eta berotzen zaizu burua. Lasaitu zaitetz, eta ahalegin du estresari aurre egiten.



Amazoniako

Izpirituengan sinesten, eta handinahikeriarik ezagutzen ez duen leinua.

Oso umela, eltxoz gainezka, eta sarri askotan euritsua den Venezuela eta Brasilgo Amazonia hartzen du 250 bat herrixkatan banaturik bizi diren azken 13.000 yanomamien lurraldeak.

Ilea, gorpuzkera, apaingarriak

Lan eguna baratzezaintza, bilketa, arrantza eta ehi- zan aritzen diren yanomamien ilea ugaria da, eta oso arraroa da helduetan ile urdinik ikustea, eta zer esan- nik ez, burusoilik. Emakume zein gizonezkoen artean oso ohikoa da burugaineko koroa moztuta izate- a; horretarako egurrezko ezpaltxo bat erabiltzen dute labanatzotzat. Larrua beltzaran argia, sudurra zapala, begiak beltzak, eta sudur, masail zein belarri- gingilak zulatuta dituzten indiarrak gurekin al- deratuta oso txikiak dira; gizonezkoek 1,56 eta emakumezkoek 1,48 cm luze dute. Gizonezkoak zakila ez erakusteko *guayuco* izeneko zuntza batez estalita eramaten du, eta emakumezkoak bularrak, mundura etorri zen moduan, erakusgai izaten ditu. Elkarri musuak emateko ez dago ohiturarik, eta balego zaila litzateke, sudurrean eta ezpainen ertzetan gehienek egurrezko makilatxo batzuk baitaramatzate.

Ehiztari arraza, dieta, edaria, tabakoa

Ehizatutakoa txikia bada, akabatu duenarentzat da; aitzitik, handia bada, ehiztarien artean banatzen da.

Animaliak hartzeko ez dute tranparik erabiltzen. Ehiza beti egun argitan egiten dute, gauaren beldur dira eta. Euren irudimena eta jakin-mina, pizteko sutegiaren goiko aldean, sabaian, begi bistan ehi- zakiak zintzilikatutik izaten dituzte nola harrapatu

Elkarri musuak emateko ez dago ohiturarik; balego, zaila litzakete, egurrezko makiltxoengatik

duten kontatzeko. Yanomamiek gezi eta arkuagaz ehizatzen badakite. Arraina zein okela jateko, euren ogia platanoa da. Okela jateko ondo eginda egon behar du; odol aztarnarik badu ez dute nahi izaten. Harrapariak izan ezik gainontzeko txoriak lumatuta- koan erreta jaten dituzte. Erleen ezta eta larbak ere oso gustuko dituzte. Okelarik ez dutenean arraina (pirañak...) jaten dute. Dena den, yanomaiak inoiz ez dira herri arrantzalerik izan. Alkoholdun edaririk ez dute ezagutzen. Ura da euren edari bakarra. Oihan- ean ur gabezi handia badago kanabera batzuen adarrak mozten dituzte, eta horrek ematen duen li- kidoa edaten dute. Yanomamien artean tabakoa erre baino zurrupatu egiten da. Horretarako ezpainen ba-

ruko aldean kokatzen dute; gosea baretu, dastame- na disimulatu, eta organismoak behar dituen gatzak ematen dizkie tabakoak. Edateko eta jateko baino ez dute tabakoa ahotik kentzen.

Lapurretak, yopoa

Propietatearen zentzua oso ondo dago zehaztuta in- diarren artean; norberak hartutakoa norberarena da, eta ehizan, arrantzan edota oihanean bildutakoa ja- sotzen duenarena da. Nahiz eta yanomamien artean lapurreta gutxi egon, suertatzen denean oso gaizki dago ikusita, eta askotan mazo-kolpez konpontzen dute. *Pararo* izeneko arbolak sortutako hazietatik hartzen dute yanomamiek *yopo*-a. Haziak zurituta- koan, eguzkitan ipintzen dituzte lehortzen, gero oreka egiteko. *Yopo*-aren osaketa goizean goiz edota eguer- dian egiten dute, eta kontsumoa, berriz, arratsalde- ko lehenengo orduetan. Arratsaldeko lauretatik au- rrera hartzea ez da batere ona, izpirituak etortzen baitira. Gizonezkoek baino ez dute parte hartzen prestaketan. Emakumezkoek *pararo*-a batzen eta aleak zuritzen lagun dezakete, baina horretan bai- no ez. Ospakizunaren helburuetako bat izpirituarekin harremanetan ipintzea, bertakoen eritasunak senda- tzea, eta etsaiengan kalte eta gaitzak eragitea da. *Yo- po*-aren zeremonian pertsona bik hartzen dute par- te: batak esku ahurrean zabalduetako *yopo*-a (hautsa) bestearen sudur zulotik gora egiteko *mokohiro* izene- ko kanaberaren zuloan barreiatuko du mutur bate- tik putz eginez. Besteak, bitartean, izpirituarekin kon- taktuan jartzen ahaleginak egingo ditu. Horretarako, behin eta berriro, dantzatu, eta kantatuko du «komi-



© JUAN LUIS MUGERTZA

yanomamiak

re, komi, komire, komire, komire» (oihukatzen duen tximino zuria naiz), trantzean egon arte.

Xapono-a, andreen egoera latza, txintxorroak
Dokumental edota pelikularen batean oihanaren erdian inoiz ikusi dugun lastoz egindako biribil itxurako argiguneak *xapono* du izena. Horrelako herrixka egiteko hilabeteak behar izaten dituzte. Komunitate batek urte asko egin dezake leku jakin batean migitu gabe, eta batzuetan herrixka baten barruan beste

Emakumea beldurrez bizi da; jaio berria neskatxo bada, amak askotan hil egiten du...

bat egin dezakete, batzuk *xapono* zaharreak gelditu bitartean, eta besteak berrian. Hori gerta daiteke *xapono* horren populazioak ehunetik gora egiten duenean, eta euren arteko elkarbizitza hondatzen hasten denean. Etsaien beldur diren herrixketan inguruak oholetzatzen dituzte. Gizonezkoa da agintzen duena, eta sarritan emakumea jotzen du. Emakumea beldurrez bizi da, horregatik jaio berria neskatxo bada, amak askotan hil egiten du berak bizi izaniko egoera gogorra ez pairatzeko. Emakume gutxi eta aukera txikia dagoen lekuetan harreman homosexualak izaten dira; dena den, ez omen da gauza arrunta. Ezkontzako desleialtasuna euren artean ere ematen da. Egindako emakumeak gainontzeko emakumeen

mesprezua izaten du. Euren altzari bakarria txintxorroa edota hamaka da. Horretarako etxolaren barruko habe bi nahikoak dira alde banatan kateatzeko, eta ohe itxura hartzeko. Bertan lo, eseri, amestu edota baten bat gaixorik badago; leku batetik bestera eramateko ere balio du kotoi-landarez eta *bejuco*-z egindako hamakak. Txintxorroek askotan osatzen duten triangeluaren erdian sutegia pizten dute.

Suaren kondaira

Aspaldian, yanomamien artean Iwa-riwë zeritzonak baino ez zuen sua. Gizon garaia, baldarra, eta mesfidatia zen. Hain zen fidagaitza, ezen mingainaren azpian gordetzen baitzuen. Gainera, gaiztoetan gaiztoena zen. Gainontzeko yanomamiek ehizatik etortzen zirenean, Iwa-riwëri okela sutan erretzeko eskatzen zioten, baina berak ezetz esaten zien beti. Yanomamiek harri baten gainean ehizatutakoa gordinik jan bitartean, Iwa-riwëk euria eta hotz handiko egunetan, sua piztu, eta jan egiten zuen. Tribu-kideei sutara hurreratzen ere ez zien uzten, eta horregatik ez zuen lagunik.

Poliki-poliki yanomamiek amore eman zuten; sua eskatzeaz nazkatuta zeuden. Hala ere, bazegoen gizonezko bat, Yorekitirami, oso txikia eta berritsua, etsitzen ez zuena. Iwa-riwëk errefusatu egiten zuen arren, Yorekitirami beti suaren inguruan egoten zen, eta berba asko, eta barre eragiten zion bere txistek zirela eta. Iwa-riwë mugitzen zenean, Yorekitiramik ez zizkion begiak gainetik kentzen. Gaueko euriak eragindako hotza ikaragarria izan zen egun batean, yanomami asko eztulka, eta marrantak jota zeuden.

Iwa-riwëren sua nahikoa izango zen sendatzeko, baina gaixoei sua ukatu egiten zien. Horregatik, yanomami asko larriki gaixotu ziren. Sasoi hartan inor ez zen *conuco*-ra joaten, ezta ehizara ere. Denak zeuden eri. Egoerak behartuta, batzuk etsita, eta erreguka, *Iwa-riwë*-rengana joan ziren: «Zure senideak gara. Emaguzu txingar bat, bestela hil egingo gara.» Alperrik aritu ziren baina. Bitartean, Yorekitirami Iwa-riwëren txintxorroaren ondoan inoiz ez bezala erne zegoen. Halako batean, horrek doministiku egin Atxis!, eta suak ahotik salto egin zuen. Iwa-riwëk, erdi lotan zegoenez, ez zekien zer gertatzen ari zen, eta konturatu orduko Yorekitiramik eskuetan sua hartu, eta pozarren alde egin zuen. Iwa-riwëk suaren jabetza galdu ostean, amorratuta herrixkatik oso urrutira ihes egin zuen. Desesperatuta, ibai baten uretan murgildu, eta alga bihurtu zen.

Yorekitiramik tribu-kide guztien artean sua banatu zuen, eta harrezkeroztik, sua ezinbesteko elementua da yanomamien bizimoduan. Izan ere, surik ez badago yanomamiek ez dute lorik egiten, eta suak berotu, argi egin, eta animaliak uxatzeko balio du.

◀ JUAN LUIS MUGERTZA UNANUE

Juan Luis Mugertza Unanue
(Elgoibar, 1954) aspaldi Berangon bizi den idazlea da; bidaiatzea du maite, eta guk gogoko dugu urrutiko lurraldeetako berri izatea.



Sukaldean

Harri bolkanikoko parrilan egindako 1,1 kiloko txuleta



OSAGIAK:

Txuleta (1,1 kg) eta gatz lodia.

GURE ETXEA TABERNA

Aurrezki Kutxa kalea, 14. Itzubaltzeta/Romo (Getxo)
 Tel.: 685 754 521
www.facebook.com/gureetxea.taberna

Sagardotegien garaia atzean utzi dugun arren, oraindino ere badago aukera egungoko behitxuletak dastatzeko, eta Gipuzkoa aldera joan behar barik, gainera! Itzubaltzeta/Romoko Aurrezki Kutxa kalean bertan, Gure Etxea taberna dugu. Hortxe, Jon Ander Urrutia harategitik ekarritako 1,1 eta 1,5 kg arteko kalitate ezin hobeagoko txuletak eskaintzen dituzte, martitzenetik zapatuta. Sukaldekoek aipatzen dutenez, horiek prestatzeko gakoa harri bolkanikoz egindako parrila da, «ikatz darabiltenak baino garbiagoak dira, eta ez dute kerik sortzen». Hala, txuleta sutan izaten dute, 20 eta 28 minutu artean, pisuaren arabera; ondoren, Eskoziatik ekarritako itsas gatz lodia bota, eta berotutako

harri ganean eroaten dute mahaira, zatitan ebakita, gustuaren arabera jan ahal izateko. Txuletagaz batera, egundoko aukera da Lezamako Lekerika familiaren tomateakaz egindako entsalada eta piper berde frijituak jatea. Lehenengoak, Tuterako oliba-olioagaz nahastuta, entsalada ezin hobea izango dugu aurrean; gainera, mokaduari Eskoziaiko gatz gehituta, freskotasanuz gainera, kurrukari-puntu ederra lortzen dute Gure Etxea tabernakoek tomate entsalada horretan. Azkenik, bazkariari edo afariari itzelezko amaiera emateko, zer dago hobeagorik Otxandioko gazta ondu bat baino? Bada, Kerixara gaztandegiko produktua hartuta, eta Conde Valdemar 2010eko ardoagaz bustita, bapo-bapo amaituko dugu otordua. ◀

faceguk



Zer deritzozu Tosuko parkingari?

JOSE IGNACIO ESNAOLA HORMAETXE AREETA



Parkingaren ordez, herriko gazteentzako babes ofizialeko etxeak eraiki beharko lituzkete; antza, holako etxebizitza-politikek ez daukate lekurik Getxon.

MARIBEL SAMPER IZARRA BARAKALDO / ALGORTA



Ona ala txarra izango den ez dakit. Baliteke, metro-geltokia alboan egonda, autoa bertan utzi eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko baliagarria izatea.

CARMEN ARANDA GONZALEZ ALGORTA



Oso ondo iruditzen zait. Hala ere, egin zutenetik, itxita jarraitzen du Ibarbengoako metro-geltokiak. Dirudenez, aparkalekua zabaldu arte ezin izango da erabili.

CRISTINA DE BURGOS EZQUERRA BURGOS



Metro-geltokia legez, erabilgarria izango den ala ez ere ez dakite; etxebizitza edota enpresarik ez dago inguruan. Gainera, ingurumenari kalte egingo dio.

JOSE SANCHEZ TXAPINAL ALGORTA



Parkinga egin beharrean, dagoen bezala utzi beharko lukete. Base-ri-ingurunea zaindu behar dugu; etxebizitza egingo balituzte ere, ez nintzateke ados egongo.

Dastaketa fitxa

ARDOA: Conde Valdemar, erreserba 2010.

UPELTEGIA: Valdemar.

MAHATSAK: %85 Tempranillo, %10 Graziano eta %5 Garnacha.

DASTAKETA: Gerezi kolore gorri gogorra, garbia eta distiratsua du. Usaimenean ondutako fruta ukitu indartsuak eta ondo ezkonduko ukitu espeziadunak ditu, barrikan zaharkitzen egon delako. Ahoan gozoa, biribila da, zapore-ondo luze eta indartsuagaz. Bereziki ona da etheko gisatuetarako, labeko erreketarako eta brasan koinatutako jakietarako.



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua